

Lizarragabengoko hizkera

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON*
PATXI FLORES LAZKOZ**

Lizarragabengoa herria Sakana erdialdean dago eta, administrazioari dagokionez, Etxarri-Aranazko udalaren barnean dugu, kontzeju moduan eusten diolarik bere izaerari. Geografiari erreparatzen badiogu, aldiz, Arbizu herritik askoz ere hurbilago dago eta, egun, bertako biztanlegoak harreman gehiago ditu herri honekin, aipatu gertutasuna dela eta, seguru asko. Harreman hauek (administraziokoa eta gizartekoa), seguruenik, zer ikusi nabarmena izan dute bertako hizkeraren bilakabidean, eta honi guztiari bertako bizilagunen jatorria gehituz gero uler daiteke etxarriera eta arbizuera hizkeren arteko nahasmendua gertatu izana Lizarragabengoko hizkeran, lan honen bukaeran ikusiko dugun moduan.

Dena den, hiru dozena pertsona baino ez dira bertan bizi direnak, ia guztiak euskaldunak¹, eta, lan honek, hauen hizkera zertan den ikusteko balio badu, era berean suerta daiteke baliagarri aipatu ditugun aldameneko bi herrietakoa ere ezagutzeko, ezaugarri gehienak azaltzerakoan egiten baitzaie erreferentzia zuzena hauei.

Bestalde, Lizarragabengoko euskara aztertzeko ezinbesteko suertatu zaizkigu Patxiren gurasoek, **Juan Flores** (77 urte) eta **Mercedes Lazkoz** (73 urte), pazientzia handiz esan eta erantzun dizkigutenak eta baita Patxiren beraren lizarragabengoerarekiko ezagutza. Gainera, bilduak zituen honek aditz laguntzailearen forma eta deklinabidearen emaitza gehienak, modu honetan aitaren batean osatu ditugularik paradigmak. Horrela, beraz, beste kasu batzuetan baino askoz ere arinagoa egin zaigu hizkera honen azterketa.

* Euskal filologian doktorea.

** Euskerako irakasle.

¹ Azken urteotan bertaraturiko bikotea (gizonezkoa Huescako eta emakumezkoa kolonbiarra) izan ezik gainerako guztiak erabiltzen dute euskara komunikazio hizkuntza moduan Lizarragabenguan.

EZAUGARRI FONETIKO-FONOLOGIKOAK.
BOKALEI DAGOZKIEN EZAUGARRIAK

- Bukaera ezberdineko hitzei mugatzailea eransterakoan sortutako burutzapenak:

$-a + -a(k) > -a(k)$

Inguruko herrietako hizkeretan bezala burutzen dira $-a$ organikodun hitzak mugatzailea eransten zaienean Lizarragabengoko hizkeran: *alaba(k)*, *bezpera(k)*, *arropa(k)*, *festa(k)*, *banda(k)*, *plaza(k)*, *aldapa(k)*, *gerra(k)*, *denbora(k)*, *punta(k)*, *meza(k)*...

$-e + -a(k) > -ia(-iek)$

Arbizun, Dorraun, Unanun eta Arruazun bezala burutzen dira Lizarragabengoan $-e$ bokalaz amaituriko lexemak mugatzailea eransten zaienean, hots, singularrean nola pluralean bokal erdia itxi egiten da, baina mugatzailea berean mantentzen da singularraren kasuan, pluralaren morfema eransterakoan, berriz, asimilatu egiten delarik bokal irekia: *etxia(etxiek)*/*itxia(itxiek)*, *semia(semiek)*, *belia(beliek)*, *umia(umiek)*...

Etxarrin, Lizarragan, Lakuntzan, Uharten eta Irañetan, bi kasuetan asimilatzen da mugatzailea: *etxie(k)*, *semie(k)*, *belie(k)*, *umie(k)*...

SATen², dena den, Mercedes Lazkozek, azken herri multzo honen antzera, ondorengoak esaten ditu: *gurie*, *jendie* (51). Eta bere semea Patxik, aldiz: *jendia* (51), *erriya* (52).

$-i + -a(k) > -iya(-iyek)$

Aurrekoan bezala gertatzen da, baina oraingoan [j] sabaiko igurzari ahostunaren epentesia gertatzen delarik: *mendiya(-yek)*, *arriya(-yek)*, *erriya(-yek)*, *zirriya(-yek)*, *txikiya(-yek)*, *irriya(-yek)*...

Etxarrin, Lizarragan, Lakuntzan, Uharten eta Irañetan: *mendiye(k)*, *arriye(k)*, *erriye(k)*...

$-o + -a(k) > -ua(-uek)$

Berriro ere, Arbizuko hizkeraren eremura lerratzen zaigu Lizarragabengoko hizkera $-o$ bokalaz bukatutako hitzei dagokienean: *jitua(-uek)*, *besua(-uek)*, *zulua(-uek)*, *motua(-uek)*, *ollua(-uek)*, *borrua(-uek)*, *mandua(-uek)*, *astua(-uek)*...

Etxarriko hizkeraren eremuan, aldiz: *jitue(k)*, *besue(k)*, *zulue(k)*, *besue(k)*...

$-u + -a(k) > -uba(-ubek)$

Mugatutako hitza $-u$ bokalaz bukatzen denean, Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun bezala suertatzen dira Lizarragabengoko burutzapenak, [b] kontsonante ezpainetako herskari ahostunaren epentesia eta guzti: *munduba(-bek)*, *katuba(-bek)*, *eskuba(-bek)*, *zeruba(-bek)*, *neguba(-bek)*, *pensuba(-bek)*...

² Sakanako Ahozko Tradizioa, Sakanako Mankomunitatearen dirulaguntzaz 2001 urtean egindako herriz herriko grabaketa bilduma dugu.

- Asimilazio aurrerakaria: $a > e / V_{[+goi]} (C) _ C^3$:

Kasu honetan ere, Lizarragabengoko hizkerak Arbizu, Dorrao, Unanu eta Arruazuko hizkeren modura egiten du, hau da, /a/ beheko bokalak kontsonante bat, gutxienez, behar du ondoren edo atzetik, beheko bokalaren asimilazioaren erregela aplikatu ahal izateko. Horregatik, absolutibo singularreko morfemak ez du erregela aplikatzen eta bai, ordea, pluralak edota ergatiboak: *izendu* (izan), *ikesi* (ikasi), *izurretu* (izorratu), *egunbet* (egun bat), *bizer* (bizar), *lizer* (lizar), *arrimetu* (arrimatu), *mendiyek*, *zerubek*, *txikiyek*, *mutillek*, *lurrek...* baina *mendiya*, *zeruba*, *txikiya*, *mutilla*, *lurra...* Gauza bera gertatzen da adlatibo kasuko singularreko morfema, *-ra*, *-i* bokalaz bukatutako lexemari eransterakoan, hau da, ez da asimilaziorik gertatzen eta arbizueran, arruazueran, dorraoeran eta unanueran bezala burutzen da Lizarragabengoa⁴: *Etxarri(r)a*^δ (Etxarrira), *mendi(r)a* (mendira), *erri(r)a* (herrira)...

- /e/ bokalaren itxiera eta ondorengo diptongazioa:

$-e + K + -o > [j\acute{o}]$

Bilakabide hau sistematikoki gertatzen da Lizarragabengoko hizkeran, Sakana erdialdean eta Burundan bezala, ondorengo burutzapenak barra-barra erabiltzen direlarik: *gio* (gero), *egunio* (egunero), *biotu* (berotu), *bio-rra* (behorra), *merkio* (merkeago), *tentio* (tenteago), *luzio* (luzeago)...

Ikusten denez, bi bokalen arteko kontsonantea erori eta bokal erdia itxi egiten da kasu guztietan, diptongo bigarrenkaria sortzen delarik.

$-e + K + -a > [j\acute{a}]$

Sakana erdialdean eta Burundan ohi den moduan bokalen arteko kontsonante erorkorra galdu eta diptongoa sortzen da erdiko bokalaren itxierarekin, bokal erdia bihurtzen delarik. Bilakabide hau, *bat* zenbatzaile zehaztuarekin sortutako sandhien kasuetan eta deklinabideko adlatibo kasuaren morfema kontsonantez edo *-e* bokalaz amaitzen diren lexemei eransterakoan gertatzen da: *kalia* (kalera), *aurria* (aurrera), *itxia/etxia* (etxera), *etxiat/itxiat* (etxe bat), *semiat* (seme bat), *arrekaldia* (aurrealdera), *atzia* (atzer), *batia* (batera), *urtiat* (urte bat)...

³ HUALDE, J. I., (1991, 40): *As the examples in (37a) show, the final /-a/ of singular absolutive forms does not undergo the rule* (hau da berak proposatzen duen erregela: $V \rightarrow [-behe] / [+goi] C_0 _$: /mutil -a/ [mutile]), *but the plural absolutive/ergative forms show the application of the rule. Singular ergative forms, where the ergative marker /-k/ follows the /-a/ of the absolutive forms, are identical to the plural absolutive/ergative forms, showing that the addition of the /-k/ suffix makes singular /-a/ into a target of the rule.*

Eta oharrean aipatzen diren adibideak (37a), ondorengoak dira:

(a)	abs. sing.	abs/erg pl & erg sing.
(asto)	[astua]	[astuek]
(mendi)	[mendija]	[mendijek]
(esku)	[eskuba]	[eskubek]
(txakur)	[tsaku?a]	[tsakuek]
(alaba)	[alaβa]	[alaβak]
(gizon)	[gisona]	[gisonak]

⁴ Etxarrin, Lizarragan, Lakuntzan eta Uhartan *Etxarri(r)e*, *mendi(r)e*, *erri(r)e* ...

⁵ Mercedes Lazkozek adlatiboko morfemako dardarkaririk gabe burutzen ditu, diptongo bigarrenkaria sortuz: *Etxarriá*, *mendiá*, *erriá*... Bere senarra Juan Floresek, aldiz, mantendu egiten du dardarkari samurra: *Etxarrira*, *mendira*, *errira*... Begi bistakoa da zein herritan duen bakoitzak jatorria.

□ Hasierako *e*- bokalaren burutzapenak:

Egoera nahasia erakusten du Lizarragabengoko hizkerak hasieran *e*-, erdiko bokala, eta jarraian kontsonante erorkorra duten lexemen burutzapenei dagokien neurrian. Batzuetan, Arbizuko joera da nagusi, hau da, erdiko bokala eta hurrengo silabako bokalaren arteko kontsonantea galdu eta bigarren bokala geminatu egiten da (*ooz(e)in < eoz(e)in < edoz(e)in*); eta bestetan, berriz, Etxarrikoa, erdiko bokala eta hurrengo silabako bokalaren arteko kontsonantea galdu, erdiko bokala itxi eta kontsonantizatu egiten da, hots (*yozin < ioz(e)in < eoz(e)in < edoz(e)in*).

Horrelako burutzapenak ditugu, beraz, Lizarragabengoan: *aakusi* (erakutsi), *yosi* (erosi), *eosi* (egosi), *yanion* (herenegun), *yan* (edan), *yantzi* (erantzi), *yozin* (edozein), *oon* (egon), *aauntsi* (erauntsi)...

Bestalde, badira beste zenbait burutzapen, zeinetan hasierako bokal erdia itxi egiten den, nahiz eta arteko kontsonanterik ez egon edo ez erori, Sakana erdialde osoan bezala: *iñere* (enara), *io* (eho), *iya* (ea). Eta Arbizun gertatzen den moduan: *irui*⁶ (edugi).

□ Nor erako singularreko hirugarren pertsonako aditz laguntzailea + *-en/-ela* bilakabidea:

Da eta *zen* aditz formei *-en* eta *-ela* menderagailuak eransten zaizkie-nean, egoera nahasia erakusten du Lizarragabengoko hizkerak, hitzun batzuek arbizueraren moduan eta gehienek etxarrierarenean moldatzen baitutuzte burutzapenak. Lehenek erdiko bokalaren alde egiten dituzte eta besteek, berriz, behekoaren alde: *etor dena dek gui itxekua / etor dana dek gui itxekua*, *fan dela aittu ñau / fan dala aittu ñau*...

SATen (51), berriz ere Merzedesen semeari, Patxiri, horrela jaso dizkiote: *Fan dan mendien badao Silveira Zubizarreta... ..ta oi Mejikoa fan zan: Marques de Aguaio...*

Zenbatzaile orokorrari dagokionez, Sakana osoan bezala burutzen da: *dena* (guztia, dena).

□ /o/ → /u/ / __n bilakabidea:

Kasu gehienak inesiboko galdetzailetik eratorriak dira Sakana osoan gertatzen den moduan. Erdiko bokala itxi egiten da kontsonante sudurkariaren aurrean: *nun* (non), *nundi* (nondik), *nungo* (nongo), *nunbeitt* (nonbait), *trunku* ('tronco')...

□ *ai* > *ei* diptongo itxiera sistematikoa:

Sakana erdialde osoan bezala, sistematikoa da Lizarragabengoan ere aipatu diptongo itxiera, hurrengo burutzapen sortak erakusten duen moduan: *bei* (bai), *jei* (jai), *mei* (mahai), *nei* (nahi), *izein* (izain), *neiz* (naiz), *meiz* (maiz), *lasei* (lasai), *usei* (usain), *lenbeilen* (lehen bailehen), *beita* (baita)...

⁶ Burutzapen hau Arbizun eta Lizarragabengon gertatzen da soilik eta hauxe litzateke bere bilakabidea: *edugi* > *edui* (bokal arteko herskariaren galera) > *erui* (*d/r* txandaketa) > *irui* (hasierako erdiko bokalaren itxiera).

- /ei/ diptongo bigarrenkariaren irekiera:

Bi kasutan baino ez bada ere, Etxarriko hizkeraren antzera burutzen du Lizarragabengoko hizkerak /ei/ diptongo bigarrenkaria (*e C i > ei*): *aizien* (ehizan) eta *axai* (azeri).

Gainerako kasuetan, arbizueraren modura burutzen ditu, hots, diptongo bigarrenkaria sortu bi bokalen arteko kontsonantearen erorketaren ondorioz, baina ondoren ireki gabe geratzen delarik erdiko bokala: *irei* (< iregi, *irai* Etxarrin), *izei*⁷ (< irazegi, *izerai* Etxarrin), *irui* (< edugi, *urai* Etxarrin), *nei* (< neri, *nai* Etxarrin)...

Bestalde, behin gutxienez, /ei/ diptongo bigarrenkaria monoptongatu egiten da bokal itxia soilik geratzen delarik: *bintzet* (< behintzat). Ez da gauza bera egiten Etxarrin monoptongatutako ondorengo burutzapenaren kasuan: (*i*)*oozein* (< edozein, *yozin* Etxarrin).

- *o > au* diptongazioa eta *eu > au* diptongo irekiera:

Kontsonante sudurkariaren aurrean doanean beheko erdiko bokala, *o*, soilik diptongatzen da, ondorengo bilakabidea agertzen duelarik, *o > au / _n*: *aungi* (ongi), *auntzi* (ontzi). Baina *ospel* (*auspel* Etxarrin). Ez da, bestalde, diptongatzen beheko bokal itxia, *u*, hurrengo burutzapenean: *utzi* (*auntzi* Etxarrin).

Sakana erdialdean bezala, erabat sistematikoa suertatzen da /eul/ > /aul/ diptongo irekiera: *auskias* (euskaraz), *aun* (ehun), *auri* (euri), *auli* (euli), *aultxo* (eultxo), *auntzi* (eultzi), *laun* (leun), *laurri* (neurri), *nauke* (< neuke < nuke), *yauke* (< heuke < huke), *lauke* (< leuke < luke)...

- /aul/ > *o*, *a*, *u* monoptongaketak:

Kasu honetan ere, Sakana erdialdean bezala, /aul/ diptongoa sarritan monoptongatu egiten da, burutzapen ezberdinak suertatzen direlarik emaitzetako bokalei dagokienez: *iturriko* (itaurreko), *baruik* (baraurik), *Jangoiko* (Jaungoiko), *alki* (aulki), *dakat* (daukat), *arrantza* (arraultza), *iyote* (ihaute), *intxor* (intxaur)...

- *e > a / _ r* bilakabidea:

Lizarragabengoko hizkeran erdiko bokala ireki egiten da kontsonante dardarkariaren aurrean, baina ez Etxarrin gertatzen den modura albokariaren aurrean, hau da // kontsonantearen aurrean: *baztar* (bazter), *asarre* (haserre). Baina *elkarreki* (*alkarreki* Etxarrin).

- /on/-ez bukaturiko maileguak:

Sakana osoan eta Nafarroako hizkeretan gertatzen den moduan, inongo aldaketarik gabe burutzen dira gaztelaniatik hartutako -on/-ez bukaturiko mailegu asko eta asko: *jabona*, *balona*, *kamiona*, *montona*, *balkona*, *sermona*, *pantalona*, *klariona*...

Mailegu zaharretan, Arbizun gertatzen den moduan, ez da bukaera gorde eta -ore (kasu batean bakarrik -oi) bilakatu da hauxe: *arrazore* ('razón'), *matore* ('matón'), *arratore* ('ratón'), *sasoi* ('sazón').

⁷ Ondorengo litzateke bere bilakabidea: *irazegi > irazei* (bokal arteko herskariaren erorketa) > *izarei* (metatesia) > *izaei* (bokal arteko dardarkariaren erorketa) > *izei* (bokal irekiaren erorketa).

Bestalde, *-ción- ez* bukatu-riko maileguk *-ziyo* aldaketa burutu dute: *arraziyo* ('ración'), *deboziyo* ('devoción'), *maldiziyo* ('maldición'), *afiziyo* ('afición')...

□ Bokal itxien zenbait *txandaketa*:

Txandakatuta edo aldatuta burutzen dira zenbait kasutan bokal itxiak, /i/ eta /u/, lizarragabengoeran Sakana erdialdean egiten denaren antzera: *bi-lixkorriko* (biluzgorrian), *irruiti* (urruti), *atximixka* (atximurka).

Erakusle eta *bat* zenbatzailearekin sortutako sandhiak.

Erabat sistematikoak dira, Etxarrin eta Arbizun bezala, erakusleak eta *bat* zenbatzailearekin sortzen diren sandhiak, morfema moduan burutzen direlarik izen edo izenondoari atxikirik: *mundubontan* (mundu honetan), *izebura* (izeba hura), *kalioi* (kale hori), *itxiura* (etxe hura), *emakomiat* (emakume bat)...

□ *Bokal edo kontsonante galtze, gehiketa eta metatesiak*:

Apokope, sinkopa eta aferesiak ditugu bokal edo kontsonante galtzeak, aipatu galtzea hitzaren bukaeran, barruan edo hasieran, hurrenez hurren, gertatzen den kontuan harturik. Eta hiru modutakoak ditugu Lizarragabengoan: *jito* (*ijito*), *txikoria* ('achicoria'), *ttut* (*ditut*), *zazu* (*ezazu*), *toz* (*zatoz*), *txertxei* (*txerrizain*), *erleju* (*erreloju*), *bedratzi* (*bederatzi*), *libruu* (*liburu*), *pezta* (*pezeta*), *amerjiña* (*amabirjina*), *etorneiz* (*etorri naiz*), *ikusdet* (*ikusi dut*)...

Dena den, ikus daitekeenez, ez dira ondorioak ateratzeko modukoak, hauexek nahiko hedatuak baititugu Euskal Herri gehienean.

Epentesia, hots, bokal edo kontsonante gehiketa, behin ere ez dugu jasotzea lortu horrelako burutzapenik, bokalei dagokienean behintzat. Kontsonante epentesiak, hurrengo atalean aztertuko ditugu. Ergoienen eta Burundan ageri zaigu honen lekukotasuna: esene (esne). Eta Irañetan aipatu burutzapenez gain, asenei ('aznahi', azkura) ere bai.

Metatesiei dagokienez, ugari dira Lizarragabengoan Sakana erdialde osoan bezala: *ikutu* (*ukitu*), *luzinddu* (*lizundu*), *uberea* (*igaraba*), *kaprestu* ('cabestro'), *kijera* ('jícara'), *manzeliña* ('manzanilla'), *galtzarrotxa* (*galtzorratza*), *tresonatu* (*desondratu*), *izeei* (*irazegi*), *txameni* ('chimenea')...

KONTSONANTEEI BURUZKOAK

□ Palatalizazioa edo asimilazio-bustidura eta bustidura adierazkorra:

Sakana erdialde osoan bezala, era sistematikoan palatalizatzen dira /i/ bokal itxiaren ondorengo /l/, /n/, /t/ eta /s/ kontsonanteak aztertzen ari garen hizkera honetan, hurrengo burutzapenek erakusten duten moduan: *mutilla*, *pillaat* (pila bat), *billetu*⁸ (bilatu), *amiña* (amona), *miña*, *beño* (baino), *guañi(ken)* (oraino), *muittu* (mugitu), *aundittu*, (handitu), *pin-tterdi* (pinta erdi), *itto* (ito), *aitta*, *ixildu*, *pixuba*...

⁸ Asimilazio-bustiduraz gain, asimilazio aurrerakaria ere erakusten du burutzapen honek: *bilatu* > *billatu* > *billetu*.

Zenbait kasutan, *-nd-* kontsonante taldearen aurretik goiko bokal itxia dagoenean, bustidura suertatzen da: *menddere* (maindire), *ainddu* (agindu), *indderra* (indarra)...

Bustidura adierazkorra ere ohikoa da: *xauba* (sagua), *xamur*, *pattar*, *pattal*, *txintxu* (zintzo), *ttiki*...

□ Kontsonante igurzkariak:

Erabat sistematikoa dela esan daiteke *-h, d, g, n- > y / i_* Vbilakabidea Lizarragabengoan. Ikusi, bestela, burutzapen andana hauxe: *iyesi* (ihesi), *biyer* (bihar), *niyua* (*nihoa), *diyua* (*dihoa), *biyurri* (bihurri), *liyua* (lihoa), *miya* (mihia), *leyo* (leiho), *biyotz* (bihotz), *oyu* (oihu), *giyer* (gihar), *suya* (suhia), *iyende* (igande), *iyeketu* (igerikatu), *iyurtzi* (igurtzi), *fiyetu* (fidatu), *iyore* (inor ere), *iyuare* (inora ere), *biyeje* ('viaje')...

Ezin da gauza bera esan *jff* txandaketari buruz. Sakana erdialde osoan burutzen dira alternantzia hauxe erakusten duten lauzpabost hitz eta Lizarragabengoan ere horrela gertatzen da, baina egoera nahasiago ageri zaigularik: *fan* (joan), *fale* (joare). Baina *ittejura* (itogina, Etxarrin *ittefure*), *jorratu* (jorratu), *jorrei* (jorrai).

Zenbaitetan, bestalde, izaten da txandaketa txistukari frikariekin: *jaunkes* (zaunka(z)), *jabona* (xaboi)... Baina ez da, aldiz, gertatzen txandaketa *saski* lexemaren kasuan, Etxarrin gertatzen den moduan (*jaski*).

Beste zenbait kasutan, *k/j* kontsonanteen arteko txandaketa ikus daiteke: *bilibirjiña* (birabarkina), *jendu* (kendu), *Kaxinto* (Jacinto)...

□ Kontsonante herskariak. Alternantziak:

Arbizun, Etxarrin eta, oro har, Sakana erdialdean gertatzen den moduan, bokal arteko */h/* kontsonantea */g/* kontsonanteak ordezkatzeko du, toki berean ageri delarik batzuetan eta hitz hasierara pasatuz beste batzuetan: *ago* (aho), *agotza* (ahotza), *goneskios* (honezkero), *guai* (orain), *quartu* (ohartu), *guatze* (ohatze)...

Herskari belare ahostuna eta ahoskabearen arteko alternantziari dagokionez, lehenaren alde agertzen da neutralizaturik kasu gehienetan, aldameneko herrietan bezala: *geñu* (keinu), *gorputz*, *girtena* (kirten), *gartzela* (kartzela), *gostatu* (kostatu), *gurtola*⁹, *ganbiyuek* (kanbioak), *gonbietu* (konbidatu), *garraxi* (garrasi), *goñedo* (koinatu), *golpe* (kolpe), *gitarra*... Baina, era berean, ondorengo burutzapenak ere entzun daitezke: *koostiya* (gorosti), *karreyua* (garraio), *konpaazio* (konparazio), *kolko*, *kisa* (gisa), *kalbayo* (kalbario), *kaldor* (gailur), *kisu* (gisu)...

Ahoskabea dugu, bestalde, erabiliena ezpainetakoan artean, hau da, maizago entzuten da */p/* kontsonantea */b/* baino: *piztu*, *pertza*, *pixkor*, *pi-per*, *pike*, *polsiko*... Baina: *barkatu*, *bekatu*, *bakialfakia*¹⁰...

Alternantziak, dena den, ez dira soilik kontsonante herskariaren artean gertatzen eta beste motako kontsonanteak ere izaten dira, hala nola herskari ezpainetakoak eta ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabearen, */ff/* artean: *fago*, *bakelfake*, *farra*, *fiesta*, *kafi*, *alper*, *napar*, *afaldu*, *piku*, *infernu*...

⁹ Burutzapen hau Mercedes Lazkozi jaso diogu, baina bere senarra Juan Floresek *karrola* hitza erabiltzen duela esan digu.

¹⁰ Bigarren burutzapena, */ff-*duna, Merzedesek eman digu.

Beste batzuetan, hortzetako herskari ahostuna eta dardarkari samurraren artean izaten da alternantzia, kasu gehienetan dardarkariaren alde neutralizatzen delarik: *erai* (edari), *erabe* (edabe), *iriya* (idia), *etor ari* (etor hadi), *ergueniri* (erbinude), *beiket¹¹* (*beriket¹¹* Etxarrin, bedeinkatu)...

Azkenik, hortzetako herskariaren aldeko neutralizazioa erakusten du Lizarragabengoko hizkerak zenbait burutzapeni dagokionean, beti ere ondoko herrietakoen modura: *ider* (ilar), *zider* (zilar), *idergi* (ilargi)...

□ Kontsonante txistukariak:

Sakana erdialdean eta ekialdean gertatzen den bezala, /n/, /l/ eta /r/ kontsonanteen ondoren txistukari frikariak agertzen dira, hau da, /s/, /x/ eta /z/ kontsonanteak ageri dira eta ez /ts/, /tx/ edo /tz/: *pensatu*, *pensuba*, *alsasuarra*, *falso*, *salsa*, *bersulai*, *jersia*, *zarzaro*, *franzesa*, *bizerzuba*, *kanzonzillua*... Baina *gartzela*.

Bestalde, gogoratu bustidura edo palatalizazioa azaltzerakoan aipatu ditugun burutzapenak, zeinetan kontsonante txistukariak palatalizatuak agertzen baitira: *pixa* (txiza), *abixetu*, *axai* (azeri), *mextru* (maistru), *Joxe*, *xamar*, *xorgiña*... Ikusten denez, batzuetan /i/ bokal itxiaren eraginez suertatzen da aipatu palatalizazioa, baina besteetan, bustidura adierazkorra dugu.

□ Kontsonante albokariak:

Herskariaren atalean azaldu ditugun *d/l* txandaketez gain, albokaria eta /n/ kontsonante sudurkariaren arteko erreparatuko diogu jarraian. Sakana erdialdeko hizkeren modura burutzen da Lizarragabengoan ere, albokariaren erabilera nagusitzen delarik: *larru*, *laurri*, *lazka*, *lasei*... Burundan, berriz, sudurkaria da nagusi eta Irañetan, Arakilen hasieran, bietako burutzapenak ageri dira (*larru*, *lasai*, *naurri*, *nazka*).

Ohikoak dira, era berean, bigarren osagaitzat kontsonante albokaria duten kontsonante bikoitzak eta gaztelaniaren antzera burutzen dira: *planta*, *plumetu*, *platera*, *floria*...

□ Kontsonante galerak eta dardarkariak:

Ugari dira bokal artean, berdin bokal ezberdinak nola berdinak badira, galtzen diren kontsonanteen kasuak. Horrela, igurzkari belare ahostuna, /g/: *ein*, *aurpei*, *ezautu*, *beeittu* (begiratu), *beltzoo* (beltzago), *txikiyoo*, *dakau*, *doo/dau*¹² (dago), *nool/nau*, *jai*, *ebai*, *irei*¹³, *zartai*, *aittairreba*, *allaa¹⁴* (ailegatu), *saarra*, *goor* (gogor), *paatu* (pagatu), *gooti* (gogotik), *ttuu* (ditugu), *Lizzerrengo* (Lizarragabengoa)...

Era berean, /b/ kontsonante ezpainetako herskari ahostuna ere galtzen da bokalen artean, bereziki 'ibili' aditzaren zenbait formetan eta 'bat' zen-

¹¹ D/r txandaketaren ondorioz uler daiteke burutzapen honetako ondorengo kontsonante galera: *bedikatu* > *bediketu* > *beriket¹¹* > *beiket¹¹*.

¹² Mercedes Lazkozek Etxarrikoak bezala egiten du, *doo*, eta bere senarrak, Juan Floresek alegia, arbizuaren modura, *dau*.

¹³ Diptongo bigarrenkaria ez da ondoren iriki, arbizuaren bezala. Etxarrin, aldiz, iriki egiten da: *iregi* > *irei* > *irai*.

¹⁴ Ondoengoa izango litzateke bere bilakabidea: *ailegatu* > *allegatu* (palatalizazioa) > *alleatu* (bokalen arteko herskariaren galera) > *allaa¹⁴* (V₁V₂ > V₂V₂).

batzaile zehaztuak buruturiko sandhietan: *naalle* (nabil), *aalle* (habil), *gailtze* (gabiltza), *bestiat* (beste bat), *zuluat* (zulo bat)...

Dardarkari samurrak, /r/-k, ere askotan jasaten ditu galerak bokal artean, batez ere hauek berdinak direnean, baina baita ezberdinak direnean ere: *gaa* (gara), *zaa* (zara), *paatu* (paratu), *meexi* (merezi), *ooldiyo* (goroldio), *buuba* (burua), *beendu* ('merendua'), *nua* (nora), *azpitti gua* (azpitik gora), *goitti bia* (goitik behera), *bia* (bera), *itxia* (etxera), *atzia beix* (atzera berriz), *noona* (norena), *noi* (nori), *nok* (nork), *amaan* (amaren), *biandu* (berandu), *launbeta* (larunbata)... Begibistakoa da galera sistematikoa dela galdetzaileetan eta nor erako aditz laguntzailearen formetan, eta baita deklinabideko datibo, genitibo eta adlatibo kasuetako morfemetan ere.

Dardarkari anitzari, /f/, dagokionez mantendu egiten da hitz hasieran mailegu berrietan, Sakana osoan gertatzen den moduan: *raza*, *radiyua*, *remolatxa*, *roskilla*, *rekexona*, *rubiyua*, *redondua*, *repartittu*, *reuniyua*... Bokal protetikoa hartzen du, berriz, mailegu zaharrak direnean: *arratoi*, *arrazorea*, *arraziyua*, *erreñuba* (errainu), *errabiya*, *arrastaka*, *arrayo* ('rayos', esamoldea), *arraso*, *errezatu*, *erriatu*¹⁵ ('regar'), *errege*, *erremeyo*, *errespeto*, *errenta*, *erreka*, *errendittu*, *arropa*, *errosayo*, *errota*, *erromei*, *errueda*...

Bestalde, ez dira batere arrotzak dardarkari anitzak beste zenbait kontsonante herskarirekin sortzen dituen kontsonante bikoitzak, bai maileguen kasuan, bai sinkopa dela eta: *endriatu* ('enredatu'), *aldrebes* ('al revés'), *andre* (andere), *sobree* (sobera ere), *sobran* (soberan), *libruu* (liburu), *bedratzi* (bederatzi)...

Beste bi kasutan, gutxienez, ondoko Etxarrin eta Arbizun gertatzen den bezala, batuan dardarkari samurra ageri den tokian, Lizarragabengoan anitza ageri da: *pixekurre* (txizagura), *kakakurre* (kakagura). Dena den, ez gara ausartzen esatera dardarkari samurra anitza bihurtu denik, ezen Ergoieneko herrietan *pixagorri* eta *kakagorri* aldagaiak erabiltzen baitira eta begibistakoa da dardarkari anitza bertan dela.

Eta azkenik, oso kasu gutxitan bada ere, dardarkari anitzaren galera suertatzen da hiruzpalau burutzapenetan eta 'behar' aditzarekin sortutako sandhietan: *atsalde*, *beix*, *nok*, *ze*, *ein biet/bidut*¹⁶, *ein biezu*...

□ Errotazismoa:

Ez da errotazismo aztarnarik Lizarragabengoko hizkeran. Sakana mailan, Uhartre-Arakilen ageri dira gertaera fonetiko honen lehenengo zantzuak eta badirudi XX. mendearen hasieran oso ohikoa genuela Ihabartik ekialdera. Euskal Herriko erdialde eta mendebaldeko burutzapenak ditugu, beraz, arruntak Lizarragabengoan: *bost*, *beste*, *esan*, *ostegun*, *ostiral*, *itxi*, *masusta*, *este*...

¹⁵ Hauxe izan da bere bilakabidea: 'regar' *regatu* > *erregatu* (bokalki protetikoa) > *erreatu* (bokalki arteko herskariaren galera) > *erriatu* (disimilazioa, diptongazioa).

¹⁶ Oraingoan ere Merzedesek Etxarriko burutzapenaren alde (*ein biet* <egin behar det) egiten du eta Juanek Arbizukoaren alde (*ein bidut* <egin behar dut).

EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Izenordainak

□ Pertsona izenordainak:

Absolutiboa	<i>Ni</i>	<i>I</i>	<i>Gu</i>	<i>Zu</i>	<i>Zuek</i>
Ergatiboa	<i>Nik</i>	<i>Ik</i>	<i>Guk</i>	<i>Zuk</i>	<i>Zuek</i>
Datiboa	<i>Neei</i>	<i>Ii</i>	<i>Gui</i>	<i>Zui</i>	<i>Zuei</i>
Genitiboa	<i>Nee</i>	<i>Ii</i>	<i>Guu</i>	<i>Zuu</i>	<i>Zuen</i>
Destinatiboa	<i>Neetako</i>	<i>Iteko</i>	<i>Guuteko</i>	<i>Zuuteko</i>	<i>Zuendako</i>
Soziatiboa	<i>Neeki</i>	<i>Iiki</i>	<i>Guuki</i>	<i>Zuuki</i>	<i>Zueki</i>
Inesiboa	<i>Nee beitten</i>	<i>Ii beitten</i>	<i>Guu beitten</i>	<i>Zuu beitten</i>	<i>Zuen beitten</i>
Adlatiboa	<i>Neegana</i>	<i>Iigana</i>	<i>Guugana</i>	<i>Zuugana</i>	<i>Zuengana</i>
Ablatiboa	<i>Neegandi</i>	<i>Iigandi</i>	<i>Guugandi</i>	<i>Zuugandi</i>	<i>Zuengandi</i>
Motibatiboa	<i>Neengati</i>	<i>Iingati</i>	<i>Guugati</i>	<i>Zuugati</i>	<i>Zuengati</i>
Instrumentala	<i>Nites</i>	<i>Ites</i>	<i>Gutes</i>	<i>Zutes</i>	<i>Zuetas</i>

□ Izenordain indartuak:

Aurreko taula ez errepikatzeagatik, absolutiboan eta ergatiboan baizik ez ditugu pertsona bakoitzeko burutzapenak emango. Gainerako kasuak taulan bezala burutzen dira, forma indartuen erroa mantenduz: *nioni* (neroni), *nionek* (neronek)... *yori*¹⁷ (herori), *yorrek* (herorrek)... *gioi* (geu), *giok* (geuk)... *ziori* (zerori), *ziorrek* (zerorrek)... *zioik* (zerok), *ziok* (zerok).

□ Izenordain mugabeak:

Sakana erdialde guztian erabiltzen diren izenorde berberak ditugu Lizarragabengokoak: *bakarren bat*, *iyore*, *norbeitt*, *zerbeitt*, *ezeez*, *zeozer*, *yozein*, *batee*, *bation bat*, *iyork*, *iyoi*, *Ion*, *iyongati*, *iyooki*, *iyortas*...

□ Erakusleak:

	Hau	Hori	Hura	Hauek	Horiek	Haiek
Absolutiboa	<i>Au</i>	<i>Orilooi</i>	<i>Ura</i>	<i>Ok</i>	<i>Oik</i>	<i>Aik</i>
Ergatiboa	<i>Onek</i>	<i>Orrek</i>	<i>Arrek</i>	<i>Ok</i>	<i>Oik</i>	<i>Aik</i>
Datiboa	<i>Oni</i>	<i>Orri</i>	<i>Arri</i>	<i>Obi</i>	<i>Oi</i>	<i>Ai</i>
Genitiboa	<i>Onen</i>	<i>Orren</i>	<i>Arren</i>	<i>Oben</i>	<i>Oien</i>	<i>Aien</i>
Destinatiboa	<i>Onendako</i>	<i>Orrendako</i>	<i>Arrendako</i>	<i>Obendako</i>	<i>Oiendako</i>	<i>Aiendako</i>
Soziatiboa	<i>Oneki</i>	<i>Orreki</i>	<i>Arreki</i>	<i>Oki</i>	<i>Oiki</i>	<i>Aiki</i>
Inesiboa	<i>Onen beitten</i> <i>Ontan</i>	<i>Orren beitten</i> <i>Ortan</i>	<i>Arrenbeitten</i> <i>Artan</i>	<i>Oben beitten</i> <i>Otan</i>	<i>Oien beitten</i> <i>Oitan</i>	<i>Aien beitten</i> <i>Aitan</i>
Adlatiboa	<i>Onengana</i> <i>Ontaa</i>	<i>Orrengana</i> <i>Ortaa</i>	<i>Arrengana</i> <i>Artaa</i>	<i>Obengana</i> <i>Otaa</i>	<i>Oiengana</i> <i>Oitaa</i>	<i>Aiengana</i> <i>Aitaa</i>
Ablatiboa	<i>Onengandi</i> <i>Ontati</i>	<i>Orrengandi</i> <i>Ortati</i>	<i>Arrengandi</i> <i>Artati</i>	<i>Obengandi</i> <i>Otati</i>	<i>Oiengandi</i> <i>Oiteti</i>	<i>Aiengandi</i> <i>Aiteti</i>
Motibatiboa	<i>Onengati</i>	<i>Orrengati</i>	<i>Arrengati</i>	<i>Obengati</i>	<i>Oiengati</i>	<i>Aiengati</i>
Instrumentala	<i>Ontas</i>	<i>Ortas</i>	<i>Artas</i>	<i>Otas</i>	<i>Oites</i>	<i>Aites</i>

¹⁷ Hauxe izan da bere bilakabidea: *erori* > *erri* (bokal arteko dardarkari samurraren galera) > *iori* (hasierako /e/ bokalaren itxiera) > *yori* (bokal itxiaren kontsonantizazioa).

□ Erakusle indartuak:

Etxarriko¹⁸ eta Arbizuko hizkeren moduan burutzen dira Lizarragabengoan erakusle indartuak: *bia* (bera), *biak* (berak), *berai* / *biarri* (berari), *bee* / *biarren beitten* (bere/beraren baitan), *beegana* / *biarregana* (beregana/berarengana), *begandi* / *biarregandi* (beregandik/berarengandik), *biaik* (beraiek), *biaites* (beraioletaz)...

Zenbatzaileak

□ Zehaztuak:

'Bat' zenbatzaileak sandhiak sortzen ditu -a, -e eta -o bokalaz bukatu-riko lexemak zehazten ageri denean eta kontsonante ezpainenetako herskari ahostuna galdu egiten da: *plazaat* (plaza bat), *segaat* (sega bat), *itxiaat* (etxe bat), *zuluaat* (zulo bat)... Aitzitik, -i eta -u bokalaz amaitzen diren lexemekin doanean, asimilazio aurrerakariaren ondorioz, zenbatzailearen bokal irekia itxi egiten da: *mendi bet*, *leku bet*...

Bestalde, bateko eta hamarrekoen artean ez da, *bedratzi*-k erakusten duen sinkopaz gain, beste inongo burutzapen berezirik. Ehunekoetan¹⁹, Sakana erdialde osoan bezala, bi eratara burutzen dira zenbatzaileak: *berreun/bitenaun*, *irureun/irutenaun*, *laureun/lautenaun*, *bosteun/bostenaun*, *seireun/seitenaun*, *zazpireun/zazpitenaun*, *zortzireun/zortzitenaun*, *bedratzi-reun/bedratzitenaun*.

Zenbatzaile ordinalai dagokienez, lehenak izan ezik, *-gerna* (< -garrena)²⁰ morfema erabiltzen dute Lizarragabengoko burutzapenek, Sakana erdialde osoan gertatzen den moduan: *lenallenbizikua*, *bigerna*, *irugerna*, *laugerna*, *bosgerna*, *seigerna*, *zazpigerna*, *zortzigerna*, *bedratzigerna*, *amarger-na ameikagerna*, *amabigerna*... *atzen/azkena*.

□ Zehaztugabeak eta orokorrak:

Sakana osoan ohikoak ditugun zenbatzaile zehaztugabeak erabiltzen dituzte Lizarragabengoan ere: *batzuk*, *zenbeitt*, *asko*, *eskuterat* (eskutada bat), *besarkadaat*, *aunbeste*, *izugerri*, *makiñaat*, *bateez*, *aleikeez* (alerik ere ez), *obeki*, *gooti* (gogotik), *uberi* (ugari), *franko*, *poleki*, *neiko*, *moltsuat* (multzo bat), *samaldaat* (samalda bat), *gutxi*, *pillaat*, *pixkaat*, *puxkaat* (puska bat), *sellaat* (sail bat)... Eta gauza bera esan daiteke zenbatzaile orokorren gainean: *dena*, *guzia*, *os(os)ua* (os(o-os)oa)...

Zorrak obeki / gooti / franko zizkonau! (Zorrak hobeki / gogotik / franko zeuzkanagu!).

Atzo jende uberi / neiko / moltsuat / samaldaat oon auen! (Atzo jende ugari / nahiko / multzo bat / samalda bat egon zuan).

¹⁸ Etxarrikoan zerbait aldatzen dira. Hona hemen, hurrenez hurren, goian aipatutakoan ordaina: *bia*, *biak*, *berai*, *bee beitten*, *berai*, *beegana*, *begandi*, *bee*, *yak*...

¹⁹ Hirurehun eta laurehun zenbakien kasuetan egiten den moduan, analogiaz beraz, /r/ kontsonante dardarkaria tartekatzen da seihun, zazpiehun, zortziehun eta bederatziehun zenbakien kasuetan ere.

²⁰ Burutzapen sinkopatuia dugu hau: *-garrena* > *-garna* > *-gerna*. Azken urratsa burutu gabe barra-barra ageri da Uharte-Arakilgo dotrinan: *vigarna*, *irugarna*... Badirudi gure kasuan asimilazio aurrerakariaren ondorioz suerta litekeela *-garna* > *-gerna* bilakabidea eta, aurreko silaban bokal itxia ez duten burutzapenetan, berri, analogiaz: *bigerna*, *irugerna*, *seigerna* baina *bosgerna*, *amarger-na*...

Ezten aliatee agertu goiz guziena! (Ez dun ale bat ere agertu goiz guztian!).

Urdaiazpiko ososua jan giñubeen! (Urdaiazpiko oso-osoan jan genian!).

Deklinabidea

Sei lexema ezberdin hartu ditugu, hiru izen bizidun eta hiru bizigabe, horietako bi izen bereziak, beste bi bokalez amaituriko izen arruntak eta azken biak kontsonantez bukatutako izen arruntak. Sei izen hauen medioz deklinabideko kasu guztiak azalduko ditugu, Lizarragabengoko deklinabideko atzizkiak agerian utziz.

Izen bizigabeak: arruntak, bokalez eta kontsonantez amaitutakoak, eta berezia:

	singularra	plurala	singularra	plurala	Uharte
absolutiboa	<i>erriya</i>	<i>erriyek</i>	<i>lurra</i>	<i>lurrek</i>	<i>Uberte</i>
ergatiboa	<i>erriyek</i>	<i>erriyek</i>	<i>lurrek</i>	<i>lurrek</i>	<i>Ubertek</i>
datiboa	<i>erriyei</i>	<i>erriyei</i>	<i>lurrei</i>	<i>lurrei</i>	<i>Uberteiei</i>
ed.genitiboa	<i>erriyeen</i>	<i>erriyen</i>	<i>lurreen</i>	<i>lurren</i>	<i>Uberteeren</i>
destinatiboa	<i>erriyeendako</i>	<i>erriyendako</i>	<i>lurreendako</i>	<i>lurrendako</i>	<i>Uberteendako</i>
prolatiboa	<i>erritako (mgg)</i>		<i>lurretako (mgg)</i>		<i>Ubertetaako</i>
ablatiboa	<i>errit(i)i</i>	<i>erriteti</i>	<i>lurret(i)</i>	<i>lurretati</i>	<i>Uberteti</i>
adlatiboa	<i>erriaa</i>	<i>erritaa</i>	<i>lurriaa</i>	<i>lurrettaa</i>	<i>Ubertiaa</i>
inesiboa	<i>erriyen</i>	<i>erriten</i>	<i>lurrien</i>	<i>lurretan</i>	<i>Uberten</i>
partitiboa	<i>erriik (mgg)</i>		<i>lurrik (mgg)</i>		<i>Uberteek</i>
motibatiboa	<i>erriyengati</i>	<i>erriyengati</i>	<i>lurrengati</i>	<i>lurrengati</i>	<i>Uberteengati</i>
soziatiboa	<i>erriyeeki</i>	<i>erriyeeki</i>	<i>lurreeki</i>	<i>lurreeki</i>	<i>Uberteeki</i>
instrumentala	<i>erriyes</i>	<i>erriyes</i>	<i>lurres</i>	<i>lurres</i>	<i>Ubertes</i>
leku-den.genit	<i>erriko</i>	<i>erriteko</i>	<i>lurreko</i>	<i>lurretako</i>	<i>Uberteko</i>

Izen bizidunak: arruntak, bokalez eta kontsonantez amaiturikoak, eta berezia:

	singularra	plurala	singularra	plurala	Balentin
absolutiboa	<i>semia</i>	<i>semiek</i>	<i>mutilla</i>	<i>mutillek</i>	<i>Balentin</i>
ergatiboa	<i>semiek</i>	<i>semiek</i>	<i>mutillek</i>	<i>mutillek</i>	<i>Balentiñek</i>
datiboa	<i>semieei</i>	<i>semiei</i>	<i>mutilleei</i>	<i>mutillei</i>	<i>Balentiñei</i>
ed.genitiboa	<i>semieen</i>	<i>semien</i>	<i>mutilleen</i>	<i>mutillen</i>	<i>Balentiñen</i>
destinatiboa	<i>semieendako</i>	<i>semiendako</i>	<i>mutilleendako</i>	<i>mutillendako</i>	<i>Balentiñendako</i>
prolatiboa	<i>semetako (mgg)</i>		<i>mutilletako (mgg)</i>		<i>Balentiñetako</i>
ablatiboa	<i>semieengandi</i>	<i>semiengandi</i>	<i>mutilleengandi</i>	<i>mutillengandi</i>	<i>Balentiñengandi</i>
adlatiboa	<i>semieengana</i>	<i>semiengana</i>	<i>mutilleengana</i>	<i>mutillengana</i>	<i>Balentiñengana</i>
inesiboa	<i>semieen beitten</i>	<i>semien beitten</i>	<i>mutilleen beitten</i>	<i>mutillen beitten</i>	<i>Balentiñen beitten</i>
partitiboa	<i>semeik (mgg)</i>		<i>mutillik (mgg)</i>		<i>Balentiñik</i>
motibatiboa	<i>semieengati</i>	<i>semiengati</i>	<i>mutilleengati</i>	<i>mutillengati</i>	<i>Balentiñengati</i>
soziatiboa	<i>semieeki</i>	<i>semieeki</i>	<i>mutilleeki</i>	<i>mutilleeki</i>	<i>Balentiñeki</i>
instrumentala	<i>semies</i>	<i>semetas</i>	<i>mutilles</i>	<i>mutilletas</i>	<i>Balentiñes</i>
leku-den.genit	<i>semieen beitteko</i>	<i>semien beitteko</i>	<i>mutilleen beitteko</i>	<i>mutillen beitteko</i>	<i>Balentiñen beitteko</i>

Ikus daitekeenez, singularreko eta pluraleko burutzapenak ia berdinak dira kasu askotan, bokalaren luzapenak baino bereizten ez dituelarik. Eta bokalaren luzapenak, gertatzen denean, azentuaren intentsitatea berarekin daruma: *semiéen* (semearen), *sémien* (semeen).

Bestalde, era berean da nabaria nominatiboko plurala eta ergatibo singularra eta pluralaren artean gertatzen den sinkretismoa: *semiek etor dia* (semeak etorri dira), *semiek esan dau* (semeak esan du), *semiek esan dabie* (semeek esan dute).

Instrumentalaren morfema nafarreraren erabiltzen dena dugu Lizarragabengoan, *-(e)s*.

Inesiboan, izen bizidunekin erabiltzen den morfema ez da *-(r)engan*, *-(r)en baitan* baizik, oraingoan ere nafarreraren modura.

Destinatiboan eta prolatiboan nafarreraren morfemak erabiltzen dira Lizarragabengoko hizkeran, Sakana osoan gertatzen den moduan. Ez dira, beraz, *-rentzat* eta *-tzat* atzizkiak erabiltzen, *-rendako* eta *-tako* baizik: *semieendako* (semearentzat), *semetako* (semetzat)...

Ablatiboan, era berean, Sakana osoko ereduari jarraituz, Lizarragabengoko hizkerak ez du ageri burutzapenen bukaeran /k/ kontsonante herskari ahoskaberik.

Soziatiboan, Sakana erdialde osoan gertatzen den bezala, bukaerako kontsonante sudurkaririk gabekoak ditugu Lizarragabengoko burutzapenak: *amaaki* (amarekin), *semieeki* (semearekin), *semieki* (semeekin)...

Konparatiboa, superlatiboa eta gehiegizko maila

- Ondorengo bilakabidea dugu konparatiboan, Sakana osoan bezalako: *-ago > -ao > -oo*²¹

lenoo (lehenago), *beltzoo* (beltzago), *luzioo* (luzeago), *aundiyoo* (handiago), *beruoo* (beroago), *aluboo* (aluago), *urdiño* (urdinago)...

Bestalde, zenbaitetan, *-ko* atzizkia eransten zaio morfema konparatzailerari, *-ooko* (-agoko) morfema sortzen delarik: *polittookua* (politagokoa), *zabalookua* (zabalagokoa), *zarrookua* (zaharragokoa), *geyookua* (gehiagokoa)...

- Superlatiboan, ondorengo bilakabideak ditugu, *-en* morfema eransterakotan, ezberdinak lexema bokalez edo kontsonantez bukatzen bada: *-V + -en > VVn* eta *-C + -en > Cen*

luzeena, *astoon*²², *argiina*, *mutuuna*, *naranjaana*, *aulena*, *errezena*, *gizonena*, *polittena*...

- Gehiegizko maila adierazteko, ez du Etxarriko²³ hizkeraren modura egiten, Arbizu eta Bakaikuko hizkeren moduan baizik. Kontsonantea galtzen du *-egi* morfemak lexemari eransterakoan: *luziei* (luzegi), *aundiyei* (handiegi),

²¹ Hauxe da aipatu bilakabidea: bokalen arteko herskariaren galera eta $V_1V_2 > V_2V_2$.

²² Ondorengo burutzapen honen bilakabidea: *asto + -en > *astoen > astoon* ($V_1V_2 > V_1V_1$).

²³ Etxarriko kasuan, *-gi* morfema eransten zaio zuzenean: *aundigi*, *luzegi*, *erogi*, *biandugi* (beranduegi), *polittegi*, *txukunegi*...

eruei (eroegi), *biandui* (beranduegi), *polittei* (politegi), *txukunei* (txukunegi), *geyei*²⁴ (gehiegi)...

Denbora, leku, modu, maila eta iritzi aditzondoak

Hemen jasotako aditzondo edo adberbio guztiak Sakana erdialde osoan erabiltzen dira eta horietako asko Burundan ere bai. Modu aditzondoaren kasuan, *-ki* (*-gi*) atzizkia erabiltzen da Lizarragabengoan eta ez Burundako *-to* (*-do*) morfema. Hona hemen aditzondo erabilienak:

- Denbora aditzondoak: *agudo*, *lixta*, *aldiyen* (aldian), *atzia beix* (atzera berriz), *aurki*, *bart*, *bela* (berehala), *biandu*, *dauneko* (dagoeneko), *etzidamu*, *gio* (gero), *guai* (orain), *lenguen* (lehengoan), *lenbizi*, *noizen kuando*, *noizen bain*, *sarri*, *sekula*, *yaniaun etzitti* (herenegun etzitik)...
 - Leku aditzondoak: *onutz* (hona), *orruetz* (horra), *autz* (hara), *nunei* (nonahi), *iyun* (inon), *iyuare* (inora ere), *nuanei* (noranahi), *nunian* (non ere han), *irruiti*, *gertu*...
 - Modu aditzondoak: *obeki*, *aungi*, *geizki*, *txarki*, *poleki*, *ederki*, *arrastakan*, *banakan*, *laixterkan*, *arriken*²⁵ (harrika), *inbuluzken*, *furrutekan* (zurrutakak), *ozkakan* (koskaka), *malamente*²⁶, *gexkixe*²⁷ (primeran), *majo* (primeran)...
- Ikusten denez, *-n* kontsonate sudurkariaren paragoea jasotzen du *-ka* atzizkiak, Sakana osoan bezala eta gainera, kasu batzuetan, atzizkia beraren errepikapena ere gertatzen da: *inbuluzkekan*, *ozkakan*...
- Maila aditzondoak: *zeiñen*, *erabat*, *arraso* (arras), *erdi*, *xamar*, *izugerri*, *onen*, *orren*, *ain*, *aleno* (halaren hori), *gooti* (gogotik)...
 - Iritzi aditzondoak: *nunbeitt*, *apika*, *berbaa* (behar bada), *agi danes*, *sobrare* (sobera ere), *akaso*, *segurasko* (seguru asko)...

Aditz laguntzailea indikatiboeran

- Nor eta Nor-Nori erak:

Jarraian, aditz laguntzailearen formak ikusiko ditugu, orain eta lehen aldian, N eran guztiak eta NN_i eran soilik Nor hirugarren pertsona denean, gainerako Nor pertsonen kasuan ez baita dagoeneko erabiltzen:

²⁴ Kasu honetan, Etxarrikoan ere herskaria galdu egiten da: *geyei*.

²⁵ Aditzondo hau gaztelaniako "con viento fresco" esamoldearen parekoa dugu: *Biendu zak emendi arriken, kaso geyo ein bee!* (Bidal ezak hemendik harrika kasu gehiago egin gabe!).

²⁶ Beste hau, berriz, "en vano" esmoldearen parekoa izango genuke: *Malamente abil, ez tek ezee lortuko!* (Malamente habil, ez duk ezer ere lortuko!).

²⁷ Esanahia ikusita antzeman daiteke benetan adierazi beharko lukeenaren kontrako adierazten duela, *gaizki* + *-xe* baitira bere osagaiak.

NOR era *naiz, nintzen...* *nauk/n, nituan/nan*

orain		lehen	
	alokutib.		alokutiboa
<i>Neiz</i>	<i>Nok/n</i>	<i>Nitzen</i>	<i>Nittubeen/neen</i>
<i>Eiz</i>		<i>Itzen</i>	
<i>Da</i>	<i>Dek/n</i>	<i>Zan</i>	<i>Auen</i>
<i>Gaa</i>	<i>Geittuk/n</i>	<i>Giñen</i>	<i>Giñuzkiyeen/ñeen</i>
<i>Zaa</i>		<i>Ziñen</i>	
<i>Zaaie</i>		<i>Ziñeen</i>	
<i>Dia</i>	<i>Ttuk/n</i>	<i>Zian</i>	<i>Ittuben</i>

NOR-NORI era Nor 3. pertsona denean *zait, zitzaidan...* *zidak/n, zitzaidan/nan*

orain		lehen	
	alokutib.		alokutiboa
<i>Da(z)kit</i>	<i>Zikiak/n</i>	<i>Zakiten</i>	<i>Zikiaben/nen</i>
<i>Da(z)kik/n</i>		<i>Zakiyen/ñen</i>	
<i>Da(z)kiyo</i>	<i>Zikoyok/n</i>	<i>Zakiyon</i>	<i>Zikiyoben/nen</i>
<i>Da(z)kigu</i>	<i>Zikiuk/n</i>	<i>Zakiuun</i>	<i>Zakiuben/nen</i>
<i>Da(z)kizu</i>		<i>Zakizun</i>	
<i>Da(z)kizube</i>		<i>Zakizubien</i>	
<i>Da(z)kiyobie</i>	<i>Zikiyobel/ne</i>	<i>Zakiyobien</i>	<i>Zikiyoben/nen</i>

Hauek dira bizi-bizirik ditugun adizkiak NN_i eran, hots, Nor hirugarren pertsona denean. Gainerako pertsoneri dagokienez, entzun daitezke oraindik hainbat adizki adineko hiztunen artean, baina kasu gehienetan, egun, zeharkako formak erabiltzen dira NN_i erako jatorrizko formak saihestuz. Bizirik dirauten adizki horiekin paradigma osoa osa daiteke analogiaz edo dedukzioz eta horrela ageri zaigu burutua *Etxarri-Aranazko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia* (1991) liburuan. Ez du, beraz, merezi hemen berriro agertzea. Hona hemen aipatutako adizkiak egun oraindik entzuten diren moduan erabilia:

Ikuskuek faten banakik! (Ikusiko duk joaten banatzaik!).

Lengoonien fan giñazkiyon itxia! (Lehengo egunean joan gintzaizkion etxera!).

Emango daazubie zerbeit garaiz etortzen banakizubie? (Emango didazue zerbeit garaiz etortzen banatzaizue?).

□ Nor-Nork era:

NN_k eran, Nor hirugarren pertsona denean erabiltzen dira gehienbat. Gainerako formak oso gutxi erabiltzen dira eta lehen aldikoak are gutxiago, soilik Nor hirugarren pertsonetara mugatzen direlarik ia. Horrexegatik, hurrengo koadroan NN_k erako forma berezituak, hau da, Nor hirugarren pertsona izanik, jasoko ditugu soilik:

NOR(hura)-NORK *dut, nuen... diat/nat, nian/nan...*

orain		lehen	
	alokutib.		alokutiboa
<i>Det</i>	<i>Yet/Ñet</i>	<i>Neen</i>	<i>Niyen/ñen</i>
<i>Dek/n</i>		<i>Auen</i>	
<i>Dau</i>	<i>Dik/n</i>	<i>Zeen</i>	<i>Ziyen/ñen</i>
<i>De(g)u</i>	<i>Yaau/Ñan</i>	<i>Giñuben</i>	<i>Giñubeen/neen</i>
<i>Dezu</i>		<i>Ziñuben</i>	
<i>Dezubie</i>		<i>Ziñubien</i>	
<i>Dabie</i>	<i>Ye/Ñe</i>	<i>Zabien</i>	<i>Ziyeen/ñeen</i>

NOR(hura)-NORK *ditut, nituen... ditiat/nat, nitian/nan...*

orain		lehen	
	alokutib.		alokutiboa
<i>Trut</i>	<i>Zittubet/net</i>	<i>Nittuben</i>	<i>Nittubeen/nen</i>
<i>Truk/n</i>		<i>Ittuben</i>	
<i>Ttu</i>	<i>Zittuk/n</i>	<i>Zittuben</i>	<i>Zittubeen/nen</i>
<i>Ttugu</i>	<i>Zittubau/nau</i>	<i>Giñuzkiyen</i>	<i>Giñuzkiyeen/ñeen</i>
<i>Ttuzu</i>		<i>Ziñuzkiyen</i>	
<i>Ttuzubie</i>		<i>Ziñuzkiyeen</i>	
<i>Trubie</i>	<i>Zittube/ne</i>	<i>Zittubien</i>	<i>Zittubeen/neen</i>

Gainerako aditz formak hurrengo paradigman jasorik aurkezten ditugu. Taula osoa aurkezten badugu ere, ez daiteke esan errealitatean forma horiek guztiak erabiltzen direnik. Orainaldiko pertsona guztiak bizirik diraute, baina erabilera nahiko nahasi ageri zaigu, maiz tartekatzen baitira NN_iN_k erako formak. Lehen aldia, soilik Nor hirugarren pertsona denean erabiltzen da gaur egun:

Orain aldia

	nor			nork		
ni	N	A		U	T	nik
hi		A		U	K-N	hik
					-	hark
gu	G	E	ITT	U	GU	guk
zu	Z	E	ITT	U	ZU	zuk
zuek	Z	E	ITT	U BIE	ZUBIE	zuek
				U	BIE	haiek

Badira zenbait esaera, zeinetan NN_k erako aditz formak berean gorde diren. Esaldi hauek fosilizaturik ditugu dagoeneko Lizarragabengoko hizkeran, Etxarrikoan bezalatsu:

Bertan lertukuaut, txerriyoi! (Bertan lehertuko haut, txerri hori!).

Arrapatukuaut, bei! (Harrapatuko haut, bai!).

Eta honen aurrean, berriz:

Iruñen ikus doot! (Iruñean ikusi *diot!).

□ Nor-Nori-Nork era:

Hurrengo paradigmetan, NN_iN_k erako aditz formak jaso ditugu, orain aldikoak lehenik eta iraganekoak ondoren, Nori pertsonen arabera ordenatuak. Gogoratu lehentxeago genioena NN_k erako aditz formak azaltzerakoan, hau da, orain ikusiko ditugun aditz forma gehienek NN_k erako lehen aldiko aditz formak ordezkatzan dituztela:

NOR(hura)-NORI(niri, zuri/hiri, hari)-NORK Orain aldia

niria			zuri/hiri		hari		
batua		alokut.	batua		batua		alokut.
			Dizut	<i>Duuzut</i>	Diot	<i>Doot</i>	<i>Ziobat/nat</i>
Didak/n	<i>Daak/n</i>		Diat/nat	<i>Dubet/net</i>	Diok/n		<i>Dook/n</i>
Dit	<i>Duut</i>	<i>Ziaak/n</i>	Dizu	<i>Duuzu</i>	Dio	<i>Doo</i>	<i>Ziok/n</i>
			Dizugu	<i>Duuzuu</i>	Diogu	<i>Doogu</i>	<i>Ziobau/nau</i>
Didazu	<i>Daazu</i>				Diozu	<i>Doozu</i>	
Didazue	<i>Daazubie</i>				Diozue	<i>Doozubie</i>	
Didate	<i>Duubiet</i> ²⁸	<i>Ziaabel</i> <i>Ziaane</i>	Dizute	<i>Duuzubie</i>	Diate	<i>Doobie</i>	<i>Ziobel/ne</i>

NOR(hura)-NORI(guri, zuei, haiei)-NORK Orain aldia

guri			zuei		haiei		
batua		alokut.	batua		batua		alokut.
			Dizuet	<i>duuzubiet</i>	Diet	<i>doobiet</i>	<i>ziobat/nat</i>
Diguk/n		<i>duuguk/n</i>			Diek/n		<i>doobiek/n</i>
Digu	<i>duugu</i>	<i>ziuuk/n</i>	Dizue	<i>duuzubie</i>	Die	<i>doobie</i>	<i>ziobel/ne</i>
			Dizuegu	<i>duuzubiau</i>	Diegu	<i>doogu</i>	<i>ziobau/nau</i>
Diguzu	<i>duuguzu</i>				Diezu	<i>doozu</i>	
Diguzue	<i>duuguzubie</i>				Diezue	<i>doozubie</i>	
Digute	<i>duugubie</i>	<i>ziuube/ne</i>	Dizute	<i>duuzubie</i>	Diete	<i>doobie</i>	<i>ziobel/ne</i>

Ikusten denez, badira hainbat sinkretismo edo aditz forma berdin pertsona desberdinetarako, forma alokutiboak kontuan izan gabe: *duuzubie* (haiek-zuei-hura; hark-zuei-hura; haiek-zuri-hura), *doobie* (haiek-haiei-hura; hark-haiei-hura; haiek-hari-hura) eta azken honen forma alokutiboa *ziobe/zione*, *doogu* (guk-hari-hura; guk-haiei-hura), *doozu* (zuk-hari-hura; zuk-haiei-hura), *doozubie* (zuek-hari-hura; zuek-haiei-hura).

Lehenaldia, bestalde, oso modu erregularrean burutzen da, batuan burutzen den moduan, hots, aditz forma orainalditik lehenaldira pasatzerakoan gertatzen diren aldaketa berberak eginez (lehenaldiko morfema bukaeran, nork pertsonaren ezaugarria hasieran eta hirugarren pertsonen ezaugarri moduan *z-* hartzen du):

Doot (diot) > *noon* (nion) *dook* (diok) > *yoon* (hion).

²⁸ Patxi Floresek esaten didanez, bere aitona zenak, aldameneko amonak eta *Ameikeno* etxeko bi amonek *duutie* aditz forma erabiltzen zuten. 80 urtetik beherakoek, aldiz, guztiak hemn jaso dugun aditz forma, Etxarrin erabiltzen dena.

Duugu (digu) > *zuugun* (zigun) *duugubie* (digute) > *zuugubien* (ziguten).
Doogu (diogu) > *genon* (genion) *doozubie* (diozue/diezue) > *zenobien* (zenioten/zenieten)...

Aditz laguntzailea. Gainerako aditz moduak

□ Baldintza:

NOR era

	baldintza		ondorio oraina	ondorio lehena
banintz	<i>banitze</i>	nintzateke(en)	<i>nitzeke</i>	<i>nitzekien</i>
bahintz	<i>baitze</i>	hintzateke(en)	<i>itzeke</i>	<i>itzekien</i>
balitz	<i>balitze</i>	litzateke, zatekeen	<i>litzeke</i>	<i>zitzekien</i>
bagina	<i>bagiñe</i>	ginateke(en)	<i>giñeke</i>	<i>giñekien</i>
bazina	<i>baziñe</i>	zinateke(en)	<i>ziñeke</i>	<i>ziñekien</i>
bazinate	<i>baziñie</i>	zinatekete(n)	<i>ziñekie</i>	<i>ziñekieen</i>
balira	<i>balia</i>	lirateke, ziratekeen	<i>liake</i>	<i>zitzekien</i>

Lizarragabengoan, Arbizun bezala, sarritan, baldintzako aditz formari ondorioko morfema ere eransten zaio, horrelako esaldiak entzun daitezkeelarik:

Itxiaa etorko balitzeke, giok ee ataako giñeke. (Etxera etorriko *balitzateke, geuk ere aterako ginateke).

Donostiaa faan banitzeke, ez nitzeke aste guzien bueltatuko. (Donostiara joanen *banintzateke, ez nintzateke aste guztian bueltatuko).

Goizter etorko baliaake, listoxoo ataako giñeke laneti. (Goiztar etorriko *balirateke, listoxeago aterako ginateke lanetik).

Eta iraganean, gero eta maizago, ondorioak ez du inongo morfemarik hartzen, hau da, indikatiboko lehenaldiko forma baliatzen du zenbaitek:

Donostiaa fan banitze, ez nitzen aste guzien bueltatuko.

Goizter etor baliaa, listoxoo ataako giñen laneti

NOR-NORI era

		nor			nori			
ni		<i>N</i>	<i>A</i>		<i>KI</i>	<i>T</i>		niri
hi		<i>Y</i>	<i>A</i>		<i>KI</i>	<i>K-N</i>		hiri
hura	(<i>BA</i>)	<i>L</i>	<i>A</i>		<i>KI</i>	<i>YO</i>	(<i>KE</i>) (<i>N</i>)	hari
gu		<i>G</i>	<i>IÑA</i>	<i>Z</i>	<i>KI</i>	<i>GU</i>		guri
zu		<i>Z</i>	<i>IÑA</i>	<i>Z</i>	<i>KI</i>	<i>ZU</i>		zuri
zuek		<i>Z</i>	<i>IÑA</i>	<i>Z</i>	<i>KI</i>	<i>ZUBIE</i>		zuei
haiek		<i>L</i>	<i>A</i>	<i>Z</i>	<i>KI</i>	<i>YOBIE</i>		haiei

Ikusten denez, singularreko aditz formek eta pluraleko 3. pertsonakoak orainaldiko morfema, *-a-*, mantentzen dute, Sakana erdialde osoan bezala.

Bestalde, indikatiboan genioen moduan, 3. pertsonak erabiltzen dira gehienbat eta gainerako guztiak zeharkako formen bidez adierazten dira.

Nei alakoik gertatuko balakit bela faan nakiyoke itxiaa. (Niri halakorik gertatuko balitzait berehala joanen nintzaioke etxera).

Geyei onduatuko bagiñazkiyo izutu iinēn lakiuke. (Gehiegi ondoratuko bagintzaizkio izutu eginen litzaiguke).

Ondorio lehena eskatzen duenean, gehienetan, indikatiboko forma baino ez da erabiltzen:

Nei alakoik gertatu balakit, bela faan nakiyon itxiaa. (Niri halakorik gertatu balitzait, berehala joanen nintzaion etxera).

Geyei onduatu bagiñazkiyo, izutu iinēn zakiun. (Gehiegi ondoratu bagintzaizkio, izutu eginen zitzaigun).

Nor-nork era:

Soilik Nor hirugarren pertsona denean erabiltzen da:

BATUA	baldintza	BATUA	ondorio oraina	ondorio lehena
ban(it)u	<i>banau (banittu)</i>	n(it)u(z)ke(en)	<i>nau(z)ke</i>	<i>nau(z)ken</i>
bah(it)u	<i>bayau (baittu)</i>	h(it)u(z)ke(en)	<i>yau(z)ke</i>	<i>yau(z)ken</i>
bal(it)u	<i>balau (balittu)</i>	l(it)u(z)ke, z(it)u(z)keen	<i>lau(z)ke</i>	<i>zau(z)ken</i>
bagen(it)u	<i>bagiñu(zki)</i>	gen(it)u(z)ke(en)	<i>giñu(z)ke</i>	<i>giñu(z)ken</i>
bazen(it)u	<i>baziñu(zki)</i>	zen(it)u(z)ke(en)	<i>ziñu(z)ke</i>	<i>ziñu(z)ken</i>
bazen(it)u(z)te	<i>baziñu(zki)bie</i>	zen(it)u(z)kete(n)	<i>ziñu(z)kie</i>	<i>ziñu(z)kieen</i>
bal(it)u(z)te	<i>balabie (balittubie)</i>	l(it)u(z)kete, z(it)u(z)keten	<i>lau(z)kie</i>	<i>zau(z)kien</i>

Nor-nori-nork era:

Oso modu erregularrean burutzen dira NN_1N_k erako baldintzako aditz formak. Lehen aldiko formei iraganeko bukaerako morfema kendu eta *ba-*edo *-ke(en)* morfemak erantsiz gauzatzen dira, batuan bezala:

<i>banoo</i> (banio)	<i>nooke(n)</i> (nioke(en))
<i>baloo</i> (balio)	<i>looke(zooken)</i> (lioke(zioken))
<i>banuuzu</i> (banizu)	<i>nuuzuke(n)</i> (nizuke(en))
<i>bagiño</i> (bagenio)	<i>giñoke(n)</i> (genioke(en))
<i>baluuzubie</i> (balizue)	<i>luuzukie(zuuzukien)</i> (lizueke(zizueken))
<i>baluut</i> (balit)	<i>luuteke(zuuteken)</i> (lidake(zidakeen))

□ Ahalera:

Aditz oina zein partizipioa erabiltzen dira orain aldiko ahalerazko formetan Lizarragabengoan eta partizipioa beti, berriz, lehen aldiko formetan: *sar(tu) deitteke, ibil(li) deitteke, ...* baina *ez deitteke sartu, ez deitteke ibilli...*

Nor era: *naiteke, nintekeen, ninteke...*

Oraina	Iragana	Hipotetikoa
<i>neitteke</i>	<i>nitteken</i>	<i>nitteke</i>
<i>eitteke</i>	<i>itteken</i>	<i>itteke</i>
<i>deitteke</i>	<i>zitteken</i>	<i>litteke</i>
<i>geittezke</i>	<i>giñezken</i>	<i>giñezke</i>
<i>zeittezke</i>	<i>ziñezken</i>	<i>ziñezke</i>
<i>zeittezkie</i>	<i>ziñezkien</i>	<i>ziñezkie</i>
<i>deittezke</i>	<i>zittezen</i>	<i>littezke</i>

Erriyortan ez deitteke ezee in. (Herri horretan ez daiteke ezer ere egin).
Lengo egunien ez giñezken fan, orregati fan gaa gaur. (Lehengo egunetan ez gintezkeen joan, horregatik joan gara gaur).

Launa bixitetzia fan giñezke, beya gogua falta! (Laguna bisitatzera joan gintezke, baina gogoa falta!).

Ahalera perifrastikoa ere erabiltzen da eta, noizean behin, baita biak nahasian ere:

Al balin baabie faan ttuk! (Ahal baldin badute joanen dituk!).

Al badeitteke etorko gaa! (Ahal badaiteke etorriko gara!).

Bestelako erak:

NN_i eran ez dira ia erabiltzen ahalerako aditz formak, ohiturazko aspektua baliatzen delarik gehienbat aditz forma hauen orde: *Olako gauzek yozini gertatzen dazkiyo!* (Horrelako gauzak edozeini gertatzen zaizkio!). Hala ere, erabat ulergarri suertatzen dira ahalerazko aditz forma hauek: *gerta dakiyoke* (gerta dakioke), *fan gazkizuke* (joan gakizkizuke), *etor nakizubieke* (etor nakizueke)...

NN_k eta NN_iNN_k eretan, aldiz, Nor hirugarren pertsona denean lehenaren kasuan eta Nor eta Nori singularreko hirugarrenak direnean bigarrenarenean, bizi-bizirik dira ahalerazko aditz formak. Gainerako pertsonen kasuan, orainaldian bat edo beste entzun daiteke oraindik: *nazakek/n*, *nazake*, *nazakezu*, *nazakezubie* (nazakezue), *nazakie* (nazakete), *iezaket* (hazaket), *iezake* (hazake), *iezakiau* (hazakegu), *iezakie* (hazakete).

NOR-NORK *dezaket, nezakeen, nezake* NOR-NORI-NORK *diezaioket...*

Oraina	Iragana	Hipotetikoa	Oraina	Iragana	Hipotetikoa
<i>deza(z)ket</i>	<i>neza(z)ken</i>	<i>neza(z)ke</i>	<i>dezoaket</i>	<i>nezooken</i>	<i>nezooke</i>
<i>deza(z)kek/n</i>	<i>ieza(z)ken</i>	<i>ieza(z)ke</i>	<i>dezoakek/n</i>	<i>iezooken</i>	<i>iezooke</i>
<i>deza(z)ke</i>	<i>zeza(z)ken</i>	<i>leza(z)ke</i>	<i>dezooke</i>	<i>zezooken</i>	<i>lezooke</i>
<i>deza(z)kegu</i>	<i>giñeza(z)ken</i>	<i>giñeza(z)ke</i>	<i>dezookegu</i>	<i>giñezoozen</i>	<i>giñezooke</i>
<i>deza(z)kezu</i>	<i>ziñeza(z)ken</i>	<i>ziñeza(z)ke</i>	<i>dezookezu</i>	<i>ziñezoozen</i>	<i>ziñezooke</i>
<i>deza(z)kezubie</i>	<i>ziñeza(z)kien</i>	<i>ziñeza(z)kie</i>	<i>dezookezubie</i>	<i>ziñezookien</i>	<i>ziñezookie</i>
<i>deza(z)kie</i>	<i>zeza(z)kien</i>	<i>leza(z)kie</i>	<i>dezookie</i>	<i>zezoookien</i>	<i>lezookie</i>

□ Subjuntiboa:

Ez da ia erabiltzen gaur egun aditz modu hau, aditz forma batzuk baino ez zaizkigu gelditu fosilizaturik eta, horietan ere, Etxarriko eta Arbizuko formen arteko lehia ikus daiteke Lizarragabengoko hizkeran:

Jar geitte(ze)n²⁹ meyortan! (Jar gaitezen mahai horretan!) Nor eran.

Jangoikua laun dakiyola atzien ta aurrien! (Jaungoikoa lagun dakiola atzean eta aurrean!) Nor-Nori eran.

Gainerako aditz forma guztiak, azken hau bezala, *-la* morfemaz lagundurik ageri zaizkigu: *eman nazala* (eraman nezan), *ttabiela* (ditzaten), *geittazula* (gaitzazun), *yoziubiela* (diezaiozuen)...

²⁹ Etxarrin *geitzezen* eta Arbizun *geitten* izango genituzke aditz forma hauek. Lizarragabengoa biak lehian, esan dugun moduan. Dena den, Arbizuko joera jarraituz, Nor erako aditz forma erabili beharrean, Nor-Nork erakoa erabiltzen dute maiz: *jar tzoon* (*jar dezagun <eser gaitezen>), *buelta tzoon* (*buelta dezagun <buelta gaitezen>), *ondua tzoon* (*ondora dezagun <ondora gaitezen>)...

□ Agintera:

Nor eran erabiltzen diren berezko formak ondorengoak dira: *a(r)i* (hadi), *zeitte(z)* (zaitez), *zeitie* (zaitezte). Hirugarren pertsonetakoak, subjuntiboko formak, *-la* morfemaz lagundurik baino ez dira: *daiyela* (bedi), *daiztela* (bitez). Ezezko esaldietan, aurreko aditz formei ere *-la* morfema eransten zaie eta gainera, ahaleraren kasuan bezala, aditz partizipioa erabiltzen dute:

Mui ai meiti beinguen! (Mugi hadi mahaitik behingoan!)

Etor ai oontza! (Etor hadi honantz!)

Ez ayela muittu meiti! (Ez hadila mugitu mahaitik!)

Ez zeiztiela muittu! (Ez zaiztela mugitu!)

Bestelako eretan, aditz formak barra-barra erabiltzen dira eta aipagarrienak Nor hirugarren pertsona dutenak ditugu, aditz forma aferesidunak:

EZAK...	ITZAK...	IEZAIOK...	IEZAZKIOK...
<i>zak/n</i>	<i>ttak/n</i>	<i>yok/n</i>	<i>yozkioyok</i>
<i>zazu</i>	<i>ttazu</i>	<i>yozu</i>	<i>yozkioyozu</i>
<i>zazubie</i>	<i>ttazubie</i>	<i>yozubie</i>	<i>yozkioyozubie</i>

Nor hirugarren pertsona plurala denean soilik ezberdintzen da Etxarriko formengandik, *-it-* pluralgilea hartu beharrean *-zki-* hartzen baitu Etxarriko hizkerak: *zazkik/n* (itzak/n), *zazkizu* (itzazu), *zazkizubie* (itzazue).

Aditz sintetikoak

OON³⁰ (EGON) *nago, nengoen... nagok/n, nengoa/nan...*

orain	alokutiboa	lehen	alokutiboa
<i>noo</i>	<i>niok/n</i>	<i>ningon</i>	<i>ningobeen/nen</i>
<i>ago</i>		<i>ingon</i>	
<i>doo</i>	<i>ziok/n</i>	<i>zoon</i>	<i>ziobeen/nen</i>
<i>gore</i>	<i>gorek/n</i>	<i>giñoon</i>	<i>giñobeen/nen</i>
<i>zore</i>		<i>ziñoon</i>	
<i>zorie</i>		<i>ziñobien</i>	
<i>dore</i>	<i>ziauk/n</i>	<i>zoren</i>	<i>ziobeen/nen</i>

IBILLI (IBILI) *nabil, nenbilen... nabilek/n, nenbileen/nan...*

orain	alokutiboa	lehen	alokutiboa
<i>naail</i>	<i>naallek/n</i>	<i>naallen</i>	<i>naallebeen/nen</i>
<i>abil</i>		<i>aallen</i>	
<i>daail</i>	<i>zaallek/n</i>	<i>zaallen</i>	<i>zaallebeen/nen</i>
<i>gaaltze</i>	<i>gaaltzek/n</i>	<i>giñaaltzen</i>	<i>giñaaltzebeen/nen</i>
<i>zaaltze</i>		<i>ziñaaltzen</i>	
<i>zaaltzie</i>		<i>ziñaaltzien</i>	
<i>daaltze</i>	<i>zaaltzek/n</i>	<i>zaaltzen</i>	<i>zaaltzebeen/nen</i>

³⁰ Singularra etxarrieraren moduan eta plurala, aldiz, arbizuerean, orain aldia. Lehen aldia, guztia arbizuerearen moduan, 3. pertsona singularra izan ezik.

FAN (JOAN) noa, nindoan... noak/n, nindoan/nan...

orain	alokutiboa	lehen	alokutiboa
<i>niyua</i>	<i>niyuek/n</i>	<i>niyuen</i>	<i>niyobeen/nen</i>
<i>iyua</i>		<i>iyuen</i>	
<i>diyua</i>	<i>ziyuek/n</i>	<i>ziyuen</i>	<i>ziyobeen/nen</i>
<i>guzte</i>	<i>guztek/n</i>	<i>giñuzten</i>	<i>giñuztebeen/nen</i>
<i>zuzte</i>		<i>ziñuzten</i>	
<i>zuztie</i>		<i>ziñuztien</i>	
<i>duzte</i>	<i>zuztek/n</i>	<i>zuzten</i>	<i>zuztebeen/nen</i>

Arbizuko hizkeraren modura burutzen da ‘joan’ aditza Lizarragabengoan, etxarrietatik³¹ aldentuz.

*IRUUI*³² (EDUKI)

batua	orain	alokutiboa	batua	lehen	alokutiboa
Daukat	<i>dakat</i>	<i>zikobat/nat</i>	Neukan	<i>nakan</i>	<i>nikobeen/neen</i>
Daukak/n	<i>dakak/n</i>		Heukan	<i>yauken</i>	
Dauka	<i>daka</i>	<i>zikok/n</i>	Zeukan	<i>zakan</i>	<i>zikobeen/neen</i>
Daukagu	<i>dakagu</i>	<i>zikobau/nau</i>	Geneukan	<i>giñakan</i>	<i>giñikobeen/neen</i>
Daukazu	<i>dakazu</i>		Zeneukan	<i>ziñakan</i>	
Daukazue	<i>dakazubie</i>		Zeneukaten	<i>ziñaukien</i>	
Daukate	<i>dakabie</i> ³³ , <i>daukie</i>	<i>zikobe/ne</i>	Zeukaten	<i>zakabien, zaukien</i>	<i>zikobeen/neen</i>

Nor hirugarren pertsona ez denean ere erabiltzen dira aditz formak nahi-ko modu erregularrean: *nakak/n* (naukak/n), *naka*, *nakazu*, *nakazubie*, *nakabi/naukie* (naukate), *yaukat* (haukat), *yauka*, *yaukau*, *yakabi/yaukie* (haukate), *gazkak/n*, *gazka*, *gazkazu*, *gazkazubie*, *gazkabi/gauzkie* (gauzkate)...

³¹ Hurrengo hauek ditugu Etxarrin joan aditzaren formak: *nue/niyue*, *gue*, *dueldiyue*, *gueze*, *zueze*, *zuezie*, *dueze* (orain aldian), *niyuen*, *iyuen*, *ziyuen*, *giyuezen*, *ziyuezen*, *ziyuezien*, *ziyuezen* (lehen aldian). Eta alokutiboak, aldiz: *niyuek/n*, *ziyuek/n*, *giyuezek/n*, *ziyuezek/n* (orain aldian), *niyuebaan/nan*, *ziyuebaan/naan*, *giyuezebaan/nana*, *ziyuezebaan/nana* (lehen aldian).

³² Etxarrikoan, batez ere lehen aldiko alokutiboak dira ezberdinak: *nikobaan/naan*, *zikobaan/naan*, *giñukebaan/naan*, *zikobaabien/naabien*. Nor Haiek denean, -z- pluralgilea tartekatzen zaio aditz formari: *dazkat*, *dazkau* (dauzkagu), *dazkazubie* (dauzkazue), *giñazkan* (geneuzkan), *zazkaben* (zeuzkaten)...

³³ Patxi Floresek esan didanez, bere aitona *daukie* orain aldian eta *zaukien* leen aldian erabiltzen zuen. Bere amak, berriz, *dakabie* eta *zakabien*, etxarrietaren modura.

JAKIN

batua	orain	alokutiboa	batua	lehen	alokutiboa
Dakit	<i>dakit</i>	<i>zikiyet/ñet</i>	Nekien	<i>nakiyen</i>	<i>nikiyeen/ñeen</i>
Dakik/n	<i>dakik/n</i>		Hekien	<i>yakiyen</i>	
Daki	<i>daki</i>	<i>zikik/n</i>	Zekien	<i>zakiyen</i>	<i>zikiyeen/ñeen</i>
Dakigu	<i>daki(g)u</i>	<i>zikiyau/ñau</i>	Genekien	<i>giñakiyen</i>	<i>giñikiyeen/ñeen</i>
Dakizu	<i>dakizu</i>		Zenekien	<i>ziñakiyen</i>	
Dakizue	<i>dakizubie</i>		Zenekiten	<i>ziñakiyeen</i>	
Dakite	<i>dakibie</i>	<i>zikiye/ñe</i>	Zekiten	<i>zakibien</i>	<i>zikiyaabien/ñaabien</i>
	<i>dakiye</i>				

EMAN³⁴ (ERAMAN) Nor hura denean

batua	orain	alokutiboa	batua	lehen	alokutiboa
Daramat	<i>daamit</i>	<i>zaamiyet/ñet</i>	Neraman	<i>naamiyen</i>	<i>naamiyeen/ñeen</i>
Daramak/n	<i>daamik/n</i>		Heraman	<i>yaamiyen</i>	
Darama	<i>daami</i>	<i>zaamik/n</i>	Zeraman	<i>zaamiyen</i>	<i>zaamiyeen/ñeen</i>
Daramagu	<i>daami(g)u</i>	<i>zaamiyau/ñau</i>	Generaman	<i>giñaamiyen</i>	<i>giñaamiyeen/ñeen</i>
Daramazu	<i>daamizu</i>		Zeneraman	<i>ziñaamiyen</i>	
Daramazue	<i>daamizubie</i>		Zeneramaten	<i>ziñaamiyeen</i>	
Daramate	<i>daamiye</i>	<i>zaamiye/ñe</i>	Zeramaten	<i>zaamibien</i>	<i>zaamiyaabien/ñaabien</i>

EMAN (ERAMAN) Nor haiek denean

batua	orain	alokutiboa	batua	lehen	alokutiboa
Daramatzat	<i>daamizkit</i>	<i>zaamizkiyet/ñet</i>	Neramatzan	<i>naamizkiyen</i>	<i>naamizkiyeen/ñeen</i>
Daramatzak/n	<i>daamizkik/n</i>		Heramatzan	<i>yaamizkiyen</i>	
Daramatza	<i>daamizki</i>	<i>zaamizkik/n</i>	Zeramatzan	<i>zaamizkiyen</i>	<i>zaamizkiyeen/ñeen</i>
Daramatzagu	<i>daamizki(g)u</i>	<i>zaamizkiyau/ñau</i>	Generamatzan	<i>giñaamizkiyen</i>	<i>giñaamizkiyeen/ñeen</i>
Daramatzazu	<i>daamizkizu</i>		Zeneramatzan	<i>ziñaamizkiyen</i>	
Daramatzazue	<i>daamizkizubie</i>		Zeneramatzaten	<i>ziñaamizkiyeen</i>	
Daramatzate	<i>daamizkiye</i>	<i>zaamizkiye/ñe</i>	Zeramatzaten	<i>zaamizkibien</i>	<i>zaamizkiyaabien/ñaabien</i>

³⁴ Bi eratera erabiltzen da aditz hau erroari dagokionez, berdin entzuten baitira -B- erroa dararamaten adizkiak (*daabit*, *daabik/n*, *daabi...*), bai orain aldian, nola iraganean.

LIZARRAGABENGOKO HIZKERAREN SINTAXIA

Atal honetan, Lizarragabengoan esaldiak burutzeko baliatzen dituzten partikula, juntagailu, menderagailu eta abar azalduko ditugu eta horrela ikusiko dugu ez direla inguruko herrietako hizkerekiko ezberdinak.

Harridurazko esaldiak

Lehentxeago genioen moduan, aldameneko herrietan bezala, esamoldeak, interjekzioak, erakusleak, galdetzaileak, bokatiboak eta beste batzuk erabiltzen dituzte Lizarragabengoan harridurazko perpausak burutzerakoan: *iyon dienak* (inon direnak), *alakoik* (halakorik), *kuanto* (kuanto, jakina), *nei lauke* (nahi luke), *baldimes* (baldin berez), *a ze gio re* (a zer gero ere), *auxeek* (hauxe duk), *zeiñen* (zeinen), *oi ...-(e)n* (hori ...-(e)n), *bierrik* (beharrrik), *lastima* (lastima, oxala), *demoni* (demontre)...

Iyon dienak ikus be zittunau! (Inon direnak ikusi behar ditinagu!)

Alakoik guañi, diruba eman da kejo alee! (Halakorik oraindik, dirua eman eta kexu hala ere!)

Geizki zion, kuantu! (Gaizki zegon, jakina!)

Nei lauke ba, aunbeste lan inda! (Nahi luke bada, hainbeste lan eginda!)

Geyoo buzpideik ez! (Gehiago ganorarik ez!)

Baldimes ee, etorko al dek! (Baldinberez ere, etorriko al duk!)

A ze gio re, een guzia ortan pasatu oi itteko! (A zer gero ere, egun guztia horretan pasatu hori egiteko!)

Ura jendeketa etor zana! (Hura jendeketa etorri zena!)

Auxeek au, komeiya! (Hauxe duk hau, komedia!)

Zeinen polittaa zu, zuen aurroi! (Zeinen polita da zu, zuen haur hori!)

Oi erriyeen txukuna dakazubiena! (Hori herriaren txukuna daukazue-na!)

Bierrik etorria, gozua jarko litzeke aneya, bestela! (Beharrrik etorri da, gozua jarriko litzateke anaia, bestela!)

Lastima, estualdiin bet eman baloobie, sikia! (Lastima, estualdiren bat eman baliote, sikira!)

Apaaju oneek! (Apareju ona duk!)

Demoni sunsungorda! (Demontrearen / Halako sursum corda!)

Koordinazioa

Jaso ditugun esaldi ezberdinen bitartez lau koordinazio motak aztertuko ditugu, bakoitzean zein juntagailu erabiltzen diren azalduz:

- Emendiozko juntagailuak eta esaldiak: *(e)ta / da*³⁵ (eta), *re / ee* (ere), *beita... re* (baita ere), *ezta... re* (ezta ere), *geiñaa* (gainera), *bintzet* (behintzat), *biarre* (bederen), *gutxiines* (gutxienez), *ezeze* (ez eze)...

Zu ta ni, iyoore geyoo ez. (Zu eta ni, inor ere gehiago ez)

Jan da lo, besteik eztau iitten. (Jan eta lo, besterik ez du egiten)

³⁵ Kontsonante herskari ahostuna, /d/, aurreko hitza kontsonante sudurkariz amaitzen denean erabiltzen da. Hurrengo juntagailuaren kasuan, berriz, dardarkaria galtzen da aurreko hitza kontsonantez bukatzen bada.

Ni re faan nitzeke beiya ... (Ni ere joanen nintzateke baina ...)
Neguben ee bazikik berua iitten. (Neguan ere bazekik beroa egiten)
Ezta pentsatu re! (Ezta pentsatu ere!)
Egunon! Beita zuui re! (Egunon! Baita zuri ere!)
Biyer lania fan be yet, loganiek erretzen niok, geiñaa. (Bihar lanera joan behar diat, logaleak erretzen nagok, gainera)
Orrek ez takit ze in be deen, ni, bintzet, banyua. (Horrek ez dakit zer egin behar duen, ni, behintzat, banoa)
Astien bein, biare, etorko balitzeke! (Astean behin, bederen, etorriko balitz!)
Ogeita amar urtes aai bieek, gutxiines, lanien. (Hogeita hamar urtez ari behar duk, gutxienez, lanean)
Nik ezeze, arrek ee, eztau idea aundiik izeen. (Nik ez eze, hark ere, ez du ideia handirik izanen)

- Burundan eta Sakana erdialdean gertatzen den moduan, ez da Lizarragabengoan *ala* juntagailua erabiltzen, soilik *(o)o* (edo) erabiltzen da: *(o)o, bestela, bestiañekuen* (beste gainerakoan)...
- Abenduba o ilbeltza zan?* (Abendua edo ilbeltza zen?)
Gaur o biyer faan gaa. (Gaur edo bihar joanen gara)
Ze esan dau, ekartzeko o emateko? (Zer esan du, ekartzeko edo emateko?)
Kilixketooi kalkatu berkueen, bestela, nekes izeeikueen! (Krisketa hori sakatu beharko dun, bestela, nekez irazegiko dun!)
Gaur yoos berkuezu, bestiañekuen, biandutu iin biakizu! (Gaur erosi beharko duzu, beste gainerakoan, berandutu egin behar zaizu!)
- Ondorengoak ditugu juntagailurik erabilienak aurkaritzako esaldietan: *beya* (baina), *ordia* (ordea), *beeix* (berriz), *alee* (hala ere), *nolanei re* (nolanahi ere)...
- Gaur goizter etorriaa, beya neka-neka iññik!* (Gaur goiztar etorri da, baina neka-neka eginik!)
Esaten doot, eztuut kasoik iitten, ordia! (Esaten diot, ez dit kasorik egiten, orde!)
Faan nitzeke, biandu da, ordia! (Joanen nintzateke, berandu da, orde!)
Atzo Donostiaa fan nitzen, gaur, beeix, Iruñaa fateko asmua akat. (Atzo Donostiaara joan nintzen, gaur, berriz, Iruñera joateko asmoa daukat)
Ez tet uste eze dakienik, ez da ixilduko, alee! (Ez dut uste ezer dakienik, ez da isilduko hala ere!)
Autooik etzikonat, nolanei re, iruuita re, e nittuken fanen! (Autorik ez zeukanat, nolanahi ere, edukita ere, ez ninduken joanen!)
Ni bestiañeko guziek allaatu zian! (Ni beste gainerako guztiak ailegatu ziren!)
- Perpaus banatzaileei dagokienean, ondorengoak ditugu juntagailurik erabilienak: *aldiateti ... besteti* (alde batetik ... bestetik), *ez ... ez, bei ... bei*. *Aldiateti auriya, besteti nekia, ez giñuben eze iin.* (Alde batetik euria, bestetik nekea, ez genuen ezer egin)
- Ez buuzpide, ez galdoorde, ez eze!* (Ez buruzpide, ez ganora, ez ezer!)
Bei zuen erriyen, bei gurien, biten ziauk! (Bai zuen herrian, bai gurean, bietan zaudek!)

Lizarragabengoko hizkerako menderagailuak

Mendeko esaldi guztien adibideak jaso ditugu atal honetan. Ez dira bezitasun gehiegirik, normala denez,

- Ondorengoak ditugu nominalizazioetan, konpletiboetan eta erlatibozkoe-tan erabiltzen diren menderagailurik ezagunenak: *-la*, *-(e)nik*, *-t(z)ia* (*-t(z)ea*), *-t(z)eik* (*-t(z)erik*), *-t(z)es* (*-t(z)ez*), *-t(z)en*, *-t(z)ia* (*-t(z)era*)...
- Oneskio bertan be laukiela esan duutie.* (Honezkero bertan behar lukeela esan didate)
- Etzikiaak iruitzen ikuskuegunik.* (Ez zekiat iruditzen ikusiko dugunik)
- Eztakit ze emaan dabien basuaa.* (Ez dakit zer eramanen duten basora)
- Eztau otsaain zenbat baliyo deen esateko.* (Ez du hots egin zenbat balio duen esateko)
- Ez men dakiyo gustetzen kanpuen jatia.* (Ez omen zaio gustatzen kanpoan jatea)
- Etzion mendiyen ibiltzeik, bazioken gaurkuengati.* (Ez zegon mendian ibiltzerik, bazegokeen gaurkoarengatik)
- Lazka-lazka iinik noo oi launtzes.* (Nazka-nazka eginik nago horiei laguntzez)
- Erretzeti utzi be zeela, beya...* (Erretzetik utzi behar zuela, baina...)
- Etziune belarroik erretzen utzi.* (Ez ziguten belar horiek erretzen utzi)
- Enauke jakiñen bier bezela lotzen.* (Ez nuke jakinen behar bezala lotzen)
- Aztu iin dakit udsa ekartzia.* (Ahaztu egin zait ura ekartzea)
- Oittuik gode meya paatzen.* (Ohiturik gaude mahaia paratzen)
- Lana eskeintzia etorri akiuu.* (Lana eskaintzera etorri zaigu)
- Paper batzuk partitziaa biyeldu geittubie.* (Paper batzuk partitzera bialdu gaituzte)
- Gezurra esatiek ez duuzu ezertan laundu ber.* (Gezurra esateak ez dizu ezertan lagundu behar)
- Enok arduoi yateko gauza.* (Ez nauk ardo hori edateko gauza)
- Bideberriyura konpontzieen aldekoa neiz.* (Bideberri hura konpontzearen aldekoa naiz)
- Libruuba leitzieki neikuet.* (Liburua leitzearekin nahiko dut)
- Aitzera ematieti yozein gauza!* (Aditzera emateagatik edozein gauza!)
- Iltziaa dakazubie txakurra.* (Hiltzera daukazue txakurra)
- Erlatibozkoei dagokienez, ez dago ezer berezirik, jarraian ikus daitekeen moduan: *-n*, *-tako/-dako*.
- In duuzubien opariyek lan franko eman duuzkigu.* (Egin dizuten opariak lan franko eman dizkigu)
- Esan dezunaangati ai neiz, ez iindakuengati.* (Esan duzunarengatik ari naiz, ez egindakoarengatik)
- Ataatako ongarri guziek geenak ittuben.* (Ateratako ongarri guztiak gerenak hituen)
- Irooz ezunaaki aixe pasatukuezu illaattia.* (Irabazi duzunarekin aise pasatuko duzu hilabetea)
- Yosi auen aragiya gustora jan giñubeen.* (Erosi huen haragia gustura jan genian)

- Denborazko menderagailurik erabilienak hauexek ditugu: *(-n) biyertio* (-n bitartean), *ala* (ahala), *orduko*, *-t(z)iako* (-t(z)erako), *-niako* (-nerako), *-s kio* (-z gero), *-neti* (-netik), *onduen* (ondoren), *bezein listo* (bezain laster), *-t(z)ieki batia* (-t(z)earekin batera), *eta bela* (eta berehala), *-la*, *-n aldiyoo* (-n aldiero), *-neko*, *-n bakuitzien* (-n bakoitzean), *beñoon* (baino lehen)... *Auriya atertu biyertio ez geittuk lanien asiko.* (Euria atertu bitartean ez gaituk lanean hasiko)

Denok biltzen ez gaan biyertio etzeiztiela bazkaltzen asi. (Denok biltzen ez garen bitartean ez zaitezela bazkaltzen hasi)

Tabernati ataa ala karneta eskatzen asi zian jendiei. (Tabernatik atera ahala karneta eskatzen hasi ziren jendeari)

Manifestaziyua aittu orduko, leixterrai eman ber izendu giñoon. (Manifestazioa ahitu orduko, laisterrari eman behar izandu genion)

I muitziako astarrak umia iñen din! (Hi mugitzerako asto arrak umea eginen din)

Auskias ikes zeniako umiek earki kozkortuik zazkan. (Euskaraz ikasi zenerako umeak ederki kozkorturik zeuzkan)

Andreeiya opatu deenes kio ezтик otzik autuorrek! (Andregaiia topatu duenez gero ez dik hotzik auto horrek!)

Erriaa bueltatu aaneti ezten lanien atertzen. (Herrira bueltatu denetik ez dun lanean atertzen)

Gosal onduen emaan zeittuu Iruñaa! (Gosal ondoren emanen zaitugu Iruñera!)

Iruzkiya estali bezein listo, agudo asko frexkatukuau. (Eguzkia estali bezain laister, agudo asko freskatuko du)

I ikustieki batiaa goguatu nittuneen mandatubes. (Hi ikustearekin batera gogoratu nitunan mandatuaz)

Txikituau despedittu eta bela abiyetuko geittuk. (Txikito hau despeditu eta berehala abiatuko gaituk)

Aurpeiya estaliik zeela pasatu zan guu itxeti. (Aurpegia estalirik zuela pasatu zen gure etxetik)

Ikusten nauben aldiyoo esaten ziak. (Ikusten nauen aldiero esaten zidak)

Librubooi Donostin bizi nitzenekua den. (Liburu hori Donostian bizi nintzenekoa dun)

Lizerrenguen gelditzen dan bakutzien afaaya itten degu. Lizarragabengoan gelditzen den bakoitzean afaria egiten dugu.

Zu beñoon ezta iyore agertu. (Zu etorri baino lehen ez da inor ere agertu)

- Beste hauek dira, aldiz, esaldi kontzesiboetako menderagailuak: *neiz* (*ta*) (nahiz eta), *balin ba ... re* (baldin ba-... ere), *-yeeti* (-agatik), *orreati re* (horreatatik ere), *-dal-ta re* (-dal-ta ere)...

Neiz iyendia izen, iguel-iguel lan itten din. (Naiz igandea izan, igual-igual lan egiten din)

Neiz ta egualdiyek laundu ez, erein iin berko yau pateta. Nahiz eta eguraldiak lagundu ez, erein egin beharko diagu patata)

Biandu balin baa re, ator guugana. (Berandu baldin bada ere, hator guregana)

Tenkor jarriyeeti eztaazu itzik ataziko. (Tenkor jarriagatik ez didazu hitzik ateraraziko)

Aittu bee re, baakit zertas ai zaayen. (Aditu bage ere, badakit zertaz ari zaretan)

Milla aldiz esanda re, eztuune kasoik iin bier. (Mila aldiz esanda ere, ez dinat kasurik egin behar)

Kontuborreati, beti bezela jaai be n̄au biyer. (Kontu horreatatik, beti bezala jagi behar dinagu bihar)

- Moduzko esaldien menderagailuak honako hauek ditugu Lizarragabengon: *-n bezela, bezelako, -n moduben, -nien* (-nean), *-n mouko* (-n moduko), *-t(z)eko mouben, -nes, -niaa* (-nera), *-la, antzia/antzien/antza* (antzerantz/antzean/antza), *ba-... bezela, -tal-da...*

Ik esan daaken bezela iin yet. (Hik esan didaan bezala egin diat)

Zuu launek yakus zuutena bezelakuaa. (Zure lagunak erakutsi zidana bezalakoa da)

Uztazu doon moduben. (Utz ezazu dagoen moduan)

Uztazu doonien. (Utz ezazu dagoenean)

Biyek ee alkarren moukuek dia. (Biak ere elkarren modukoak dira)

Ain dianeko jateko mouben doo? (Hain direneko jateko moduan dago?)

Esan zabienes, gezurra men da dena. (Esan zutenez, gezurra omen da dena)

Esan dabieniaa, billera eldu aan astien izeen dek. (Esan dutenera, bilera heldu den astean izanen duk)

Nik dakitenes, iyork ee etzikin ezee. (Nik dakidanez, inork ere ez zekin ezer ere)

Guk dakiula, pelikula akatuik doo. (Guk dakigula, pelikula akabaturik dago)

Ori re aneyeen antzia ibiltzen da, ezta arte oneskua. (Hori ere anaien antzera ibiltzen da, ez da arte onezkoa)

Farra antzien, farra antzien, aurriaa seittu ziyeen paatu bee. (Barre antzean, barre antzean, aurrera segitu ziaten pagatu bage)

Biandu antza zaaltze laniala fan ber beezu. (Berandu antza zabiltza lanera joan behar baduzu)

Alaba balabie bezela tratatzen ye. (Alaba balute bezala tratatzen diate)

Eskillera terrazan jarrita sartu ber izendu neen. (Eskilara terrazan jarrita sartu behar izandu nuen)

Eskubek poltsan ttubela ikusieet kanpuen. (Eskuak poltsan dituela ikusi dut kanpoan)

- Konparaziozkoen artean ere ugari dira erabiltzen diren menderagailuak: *beiño* (... -oo) (baino (... -ago)); *bezein*; *aiña* (adina); *ainbet*; *zenbat(enes)* (*e)ta* ...-oo, *orduben da* ... -oo; -oo (-ago); *kuanto*; *-lakua* (-lakoa)...

Uste giñubena beiño zeilloukua zan. (Uste genuena baino zailagokoa zen)

Uste giñubena beiño zeilloo zan. (Uste genuena baino zailago zen)

Fan dan astekua beiño gertubookuen. (Joan den astekoa baino gertuagokoa huen)

Sekula beiño listuoo afaldu ziñubien. (Sekula bano listoago afaldu zenuten)

Ura ni bezein gutxi faten da itsesuaa. (Hura ni bezain gutxi joaten da itsasora)

Ii laun oi exkaxa bezein zurreen. (Hire lagun hori eskasa bezain zuhurra dun)

Ez gaa len aiña muitzen. (Ez gara lehen adina mugitzen)
Eyaau ik ainbet diru iroozten. (Ez diagu hik hainbat diru irabazten)
Biyejia paatzeko aiña re ez giñakan. (Bidaia pagatzeko adina ere ez geneukan)
Zenbatenes ta geyoo yosi, orduben da geyoo bier izeten dezubie. (Zenbatenez eta gehiago erosi, orduan eta gehiago behar izaten duzue)
Zenbat eta listuoo ataa orduben lenoo aillaatuko gaa. (Zenbat eta listoago atera orduan lehenago ailegatuko gara)
Zarroota tenkorroo! (Zaharrago eta tenkorrago)
Ze uste otiau orrek, kuantu bakarrik biziala. (Zer uste ote du horrek, kuantu bakarrik bizi dela / bakarrik biziko balitz bezala)
Iguelekueek erriyoi, geenaan onduen. (Igualakoa duk herri hori, gerenaren ondoan)

- Beste hauek dira baldintzazko esaldiak burutzeko erabiltzen diren menderagailuak: *ba-*, *-s kio* (-z gero), *-t(z)ias* (-t(z)eraz), *-t(z)ekotan*...
- Gareis agertzen bazaaye, dendak zabalik arrapatuko ttuzubie.* (Garaiz agertzen bazarete, dendak zabalik harrapatuko dituzue)
Inbiyya ezkabiya balitz, makiñaat balooke. (Inbidia ezkabia balitz, makina bat balegoke)
Bier dan bezela itz iñes kio jendiek kaso iñen duuk. (Behar den bezala hitz eginez gero jendeak kasu eginen dik)
Giltza aztues kio otsaain tzeiek. (Giltza ahaztuz gero hots eginiezadak)
Gezurra balitz ez giñeke ergelkeiten asiko. (Gezurra balitz ez gineteke ergelkerietan hasiko)
Aitta agertzen baakik bayuke anak arin. (Aita agertzen bazaik bahoake hankak arin)
Etoroko balitzeeke, enuke tunpetik ee esaan. (Etorriko balitzateke, ez nuke tunpetik ere esanen)
Neei saldu baluut, ongi paatuko noon. (Niri saldu balit, ongi pagatuko nion)
Iyotetaa fatias, geen autuen, bestioiki enok fiyetzen da. (Inauteetara joateraz, geren autoan, beste horiekin ez nauk fidatzen eta)
Itxia fatekotan, zuk abixetu. (Etxera joatekotan, zuk abisatu)
Bein zabaldus kio sartu iin berko yau. (Behin zabalduz gero sartu egin beharko diagu)
- Helburuzko esaldiak burutzeko hauexek dira gehien erabilitako menderagailuak: *-t(z)ia* (-t(z)era), *-t(z)eko*, *-t(z)ekotan*, *-t(z)ieti* (-t(z)eagatik)...
- Ongarriyek barratzia fateko zian.* (Ongarriak barreiatzera joateko ziren)
Ordezubie yatiaa, beix ee! (Hor duzue edatera, berriz ere)
Arropak jazteko dia, ez armayueen setiyuortan usteltzeko. (Arropak janzteko dira, ez armarioaren setio horretan usteltzeko)
Otsaittekotan giñaaltzen, beya biandutu iin dakiu. (Hots egitekotan genbiltzan, baina berandutu egin zaigu)
Ongi iin dakizubie, kasoik ez iittieti. (Ongi egin zaizue, kasurik ez egiteagatik)

- Eta kausazko menderagailurik erabilienak, aldiz, beste hauek ditugu: *-lakos*, *-gati*, *ta* (eta), *bei-* (bait), *-s kio* (-z gero), *nolabeitt...* *-n* (nolabait... -n), *-t(z)iet*i (-t(z)eagatik), *zeengati...* *-n* (zerengatik ... -n)...
- Zeengati asi neizen lanien? Diruba be neelakos.* (Zerengatik hasi naizen lanen? Dirua behar nuelako)
- Tabernak itxiik dodelakos, bestela, ones kio...* (Tabernak itxirik daudelako, bestela, honez gero...)
- Zeengati iin dezu ori? Aangati.* (Zer(en)gatik egin duzu hori? Har(en)gatik)
- Ator illundu beñoon, kontrolak paatzen zittube ta.* (Hator ilundu baino lehen, kontrolak paratzen ditiztek eta)
- Nola neizu ba, gauza onik ataatzia orrengandi, fameliyortan ezpeitoo buuzpideik.* (Nola nahi duzu bada, gauza onik ateratzea horrengandik, familia horretan ez baitago buruzpiderik)
- Ni ixildu iñnen nittukek, ezpeigaa emenguek.* (Ni isildu eginen nitikek, ez baikara hemengoak)
- Etor zaanes kio, eman berko duuzut afaltzia.* (Etorri zarenez gero, eraman beharko 'dizut' (zaitut) afaltzera)
- Nolabeitt eztakiten nun bizi an, eztet gaztietu.* (Nolabait ez dakidan non bizi den, ez dut gaztigatu)
- Garbi zion zeengati asarratu dian, garraxika astieti.* (Garbi zagon zerengatik haserretu diren, karrasika hasteagatik)
- Ergelkeiten ibiltziet*i iin dakik oi. (Ergelkerietan ibiltzeagatik egin zaik hori)
- Zeengati iin deten garraxi? Zeengati ettuten aguantatzen.* (Zerengatik egin dudan karrasi? Zerengatik ez ditudan aguantatzen)

LEXIKOARI HURBILKETATXOA

Ezin da esan, inondik inora ere, Lizarragabengoko hizkerak lexiko berezia edo aldameneko Etxarriko eta Arbizuko hizkerekiko ezberdina duenik, ezta Sakana erdialdeko hizkerekiko ezberdina ere. Beraz, esan daiteke aipatu aldameneko bi herrietako lexiko berbera baliatzen dutela lizarragabengoarrek, hurrengo zerrendan³⁶ ikus daitekeen moduan:

³⁶ Zenbait laukitan ezer ez azaltzeak Lizarragabengoko emaitza bera dela esan nahi du.

BATUA	LIZARRAGABENGOA	ETXARRI	ARBIZU
Gurutze	guutze		
Kendu	jendu, gendu		jendu
Gerezi	gild(d)a	gildde	
Tipula	tipula		
Hosto	osto		
Busti	busti		
Larru, nazka, neurri	larru, lazka, laurri		
Kare	galtziña		
Belar	belar		
Barre	farra		
Igo	itzoo		
Txiza	pixa		
Ur	udsa	utse	
Jolastu	jolastu		
Izain	izein		
Eraman	eman	yaman	
Ongi	aungi, ongi	aungi	ongi
Poliki	poleki		
Gaizki	geizki	geizki, txarki	
Trumai	ostots		
Jorratu	jorratu	forratu	
Marrubi	marrui	marrubi	
Izeba	izeba		
Barru	barne		
Giltzurrun	giltzurriñek	gultzurriñek	giltzurriñek
Masusta	masusta		masusta, masosta
Haragi	aragi		
Korrika	leixterka(n)	laxterkan	lasterka(n)
Utzi	utzi	autzi	
Urruti	irruiti		
Saguzar	iñerexau	iñerexagu	
Amona	amiña		
Aitona	aittuna		
Itogin	ittejura	ittefure	itxesura
Inurri	txingurri		
Eutsi	auskin, oskin	auski(n)	autsi
One	guatze		
Izara	menddere		
Garo	ixtor		
Bits	apar		
Igel	zapittela	zapoziyela	zapittela, zapiyela
Apo	kunkun		
Gurdi ohol	gurtola, karrola	gurtola	karrola

ONDORIOAK

Lizarragabengoa Sakanako erdialdean dago eta eremu honetan egiten den hizkeraren gisakoa dugu bertakoa ere, zalantzarik gabe. Erdialdeko hizkerako ezaugarriren bat edo beste erakusten badu ere, nafarreraren barruan kokatu behar da, beraz, hizkera hau, etxarriera eta arbizueraren artekoa baitugu, deskribapena egiterakoan ikusi ahal izan dugun bezala. Hala ere, aipatu aldameneko bi herri horien artekotasuna, hiztunaren harremanen araberkoa delakoan gaude. Dena den, egun, badirudi hiztun gehienek arbizueraren eragin handiagoa dutela eta, geldi-geldi, arbizuerarekin bat egiten ari da Lizarragabengoko hizkera, inoiz lizarragabengoera izan denik esan badaiteke.

Kasu gehienetan, Sakana erdialdeko hizkeren modura burutzen da (etxarrieraren eta arbizueraren modura ere bai, beraz) eta zenbaitetan arbizuerarenera edo etxarrierarenera, noizbait egoera nahasia ere ageri duelarik.

Arbizueraren moduko burutzapenen artean, orokorrean, esan daiteke asimilazio aurrerakariaren bilakabidea ($a > e / _C$) eta gehiegizko mailakoa ($-egi > -ei$) ditugula. Dena den, zenbaitetan asimilazioa etxarrieraren modura ere entzun daiteke: $a > e / _ \emptyset$.

Etxarrieraren aldera lerratzen duten ezaugarri bakarrak NN_k eta NN_iN_k erako aditz laguntzailearen burutzapenak eta $-a + -e > a/e$ bilakabidea ditugu: *det, dezu, dezubie, duut, duubiet, noon, etor dana, fun dala...* Zenbait aditz formekin zerikusia dutenak, beraz.

Eta, azkenik, egoera nahasia, berriz, ondorengo bilakabideetan antzeman daiteke: hasierako *e*- bokalaren burutzapenetan (*aakusi, oon, aauntsi...*; baina *yosi, yanion, yan, yozin, yantzi...*) eta */ei/* diptongo bigarrenkariaren emaitzak (*aizien, axai...*; baina *irei, izei, irui, nei...*).

TRANSKRIBAKETA

Informatzailea: Mercedes Lazkoz, 1930ean jaioa.

Data: 2003ko irailaren 2a.

Galdetzailea: Patxi Flores Lazkoz, Mercedesen semea.

G. Eta ordubean zuu gazte gareyen festak nola izeten zian?

M. *Fiestak, e, bezpera, eguna ta bigaan egunien, pues, etxes etxe Kaxtaño. Gioo andi etorri ta atziaa musika ta gioo bazkaaya.*

G. Denok faten ziñeen, herri guzia muutzen zan, oo?

M. *Bei ta kanpoti etortzen zianak, Altxegaan-txien ta Turubieen-txien ta Txomiñenien ooten txubeen, ta denak, Kaxtaño denak.*

G. Ordubean kanpuen bizi zianak ee etortzen zian?

M. *Bei, bei. Guresuek iruuittu zittubienak emenguek, gioo Altxegaanak Gipuzkua faten txubeen, Mondragona ta, gioo andi etortzen txubeen.*

G. Ta ze iitten ziñubien, hooi, buelta osua egunioo, oo nola izeten zan?

M. *Ez, ez, bigaan egunien, gio etortzen auen fotografua, Altsasukua ta fotografiek ataetzen an da emen.*

G. Ta emengo jendes aparte kanpoko jendia re etortzen zan, oo?

M. *Jendia? San Pedro egunien bizikletak uzteko tokiik ez jendiek kanpuen. Ez, ez, guu estarbiya bizikletes beteiek ooten auen. Nolabeitt ganaduek orduako Alarren ooten ziaan estarbiya libre. Beya, dena eh, tope-tope.*

G. Ta, nungo jendia zan ba?

M. Ba, Etxarriti, Arbizuti, Bakaikuti re iguel, gu faten giñen bezela askotan, e, aauntza, trenbides ee allaatu giñuzkiyen faten ee Santiagotan. Ta gioo, pues, e, gizonak bazkal onduen, guk bazkaldu ta lanak iittiaako, pues etxes etxe kafia artzen, kafia ta, tarta oo, pastel zer zoon, pues, beteeik e. Bei ta halee, San Pedro eguna e, ta bazkaldu ta lanak prisekan iin da bezperetaa, mezaa, erresa-ayua errezatziia.

G. Ze orduten izeten zan, ba?

M. Etzikiyet pa ze orduten izeen zan, beya prisekan e, ta bierreskua geñaa.

G. Iruten oo?

M. Irurek oo, etzikiyet-pa. Nolabeitt puntualoo jaten zan orduberen, guaai bertan bezela, konpaaziyuaat Arbizun irurek, iru t'erditen da, ez. Bazkaaya puntualoo ta ya bezperetaa.

G. Ta, ze musika iooten zan, oo?

M. Pues, e, akordiona, Lakuntzeko akordionista etortzen auen, gioo Etxarriko Joxe itsuba re bei, gioo kanpoti re bei. Akordatzen nok Igoa oo, zerbeit ee, etortzen txuberen bintzet. Gipuzkoti re bei, bakarren baten medios itziin da, akordionista, osea ke. Musika falta bee, akordiona oo beste laauntzaateki, normalien lendaazi lenoo akordiona bakarrik.

G. Gioo, esaten dabie ba, Etxarriko banda re etortzen zala.

M. A, bei, Etxarriko banda San Pedro egunien etortzen auen eta gioo pues, segun zenbat zoren bandan jotzen, pues e, itxiaaten bi, bestien beste bi, dena repartitu bazkaaittaako, osea, erriko etxetan jaten ziyeen, bueno ainbeste dore ta ya, orduberen repartitu. Ta lo, pues, allaatu txuberen guu etxien, e, Jeinge ta, lo iitten.

G. A, karo, musikua zan.

M. Musikua auen da, ori, zera, Lidiek eta guaai lo iitten dabien tokiyortan lo iitten ziyeen. Bestiaatzuk, beeix, gertubookua zanak, konpaaziyuaat Lakuntzekua ta, Etxarrikua ta oik ematen zittuberen famelikuek oo laaunek oo, pues, lotaa itxiaa.

G. Esaten dabie, ba, sanpedrotan arbizuarra sanjuanak despeditu ta etortzen ziala.

M. Belar segaa, ta bueltakuen Altxegan-txiaa, Altxegaana izeten auen ba, barra, betikua, or don lizer ortan uzten zittuberen segak, utzi ta biaanduaaño aztuui an. Batzuk belarraaki, bestiaatzuk segan aaittu ziaanak segaki. Ori bei, lenoo famosuek izeten txuberen.

G. Gareyartan sanjuanak motzooubek izeten zian, ez?

M. Iru-lau, emen ee bazikiyeen e iru-lau iitten ee. Iru bei, ta gioo trastake-eyek ubeldiaa fanda, altxegatarrok ze izendu diaan beti, famosos, alegres. Jendia, beya, jauzkek etxes etxe.

G. Pasatuko gaa beste kontu betiaa? Gareti betien emen ze azienda iooten zan?

M. Pues e, txerriyek, bioorak, gio beyek, azienda, hori. Biorrak ee uda guzien Alarren, gioo jaixten ziaan gareyen, guaai terraza akaaun ortan, or ooten txuberen bioorak.

G. Asko izeten ziaan?

M. Pues, segun, sei, zazpi, zortzi, etzikiyet hola, sekula kalkuloik iin, beti izendu txuberen bioorak.

G. Urteen batien elurrek arrapatu zittuben, ezta?

*M. Elurrek ee bei, arrapatu ta jendia re juxtuen, baakik. Ta bazikiye, gioo, gari denboran jaixten bioorak estaasiyeki ibiltzeko, ta haik jaixten zittubeen be-
ra, gio, pues, aultziya iitten zan gareyen, gioo ondorien bildu agotzak, etxiaa
ekarri mendderetan, gioo atziaa gariyura montondu ta baieeki pasatu ta gau-
zoik. Eta biorrak, basuaa urrengo goizien biorrak eske fan da Alarra iyasi iinik,
ori re allaatuuk gorek. Elionekuen uzten zittubeen, emengo basotan ta aik esa-
an ziyeen laniana...*

G. Aik jakinik ta alde iinien zabien.

*M. Bei, ibiltzen zittubeen aultziten ee, pues e, iriyek, bei, iriyek normalien,
beyek geruoo jarri txubeen, hola, uzterriaako. An bueltakan estaasiyaiki ta bio-
orak, beeix, leixterkan atzeta otsain da, ioozeñek artu sokati, aiba, buelta.*

G. Ta beyek ze izeten zian esne-beyek oo basokuek?

*M. Ba, etxien bakarren bat uzten bazan esnieendako, oo hola zerbeitt-peya,
normalien, beyek al dan guzia Alarra.*

G. Etzan gaur egungo, len izeten ginuzkiyen beyen antzekuek?

M. Ez, bueno, bei gorriyek eta bei.

G. Geyoo basokuek? Esnia ataatzeko etzian?

*M. Ez, ez, esneeik etziobeen ataatzten orduben. Bakutzek bee etxien eta
etzakanak, pues e, etxetati ioozita.*

G. Gioo, ardiik eta etzan izeten emen?

M. Ardiyek pei.

G. Guu itxien?

*M. Guu itxien ez, Ameeikenoona, Domingoonak eta Maakarmenenak,
hoik artzeyek izendu txubeen, Joxe, Joxe auen Ramonen aitta. Ta iitten auen sa-
nisidrotan, pues, jei, emen ta Lizerraan famatuunek. Orduben ematen zittube-
en artzei bakutzek, pues e, biña gazta erriko larretan ibiltzen ziaalakos, emaku-
miendako bi ta gizonendako bat.*

G. Egun ooi zein izeten da, elizeei buelta ematen zakiyona, oo San Blas?

*M. Ez elizeei buelta ematen zakiyona izeten auen San Antonio, San Anton,
enerueen amazapiyen izeten auen ta biorrak ee, elizeei ematen auen buelta.*

G. Zer zan azienda guzia artu ta buelta?

M. Bei, bat sokati ta bestiek atzeta.

G. Elizeei bueltaat ematen zakiyon?

M. Bei, bei, elizeei bueltaat.

G. Buelta bakarra?

M. Bei, uste yet bat izeten zala, aitteei galdeeyok nehi beek.

G. Txerriyek eta?

*M. Bei, txerriyek ee bastante, bastante, txerrikumiek saltzeko, lana barratu
artio.*

G. Ta gioo, egur eske ta orbel eske ta, nuua faten ziñeen?

*M. Bei, egur eske guaa, e, aultziyek eta iinda, pues e, Putterriaaño iguel. Ii-
tten zittubeen bakutzek been lotiek eta bestiaatzuk aparte iitten zittubeen bestal-
diaa re. Ta aaintza, biyejiaat egur ekartzeko eeun guzia an, batzuten faten gi-
nuzkiyeen Ariñetik, Artaakardik gora.*

G. Artaakardi re bidia badoo Putterriaa?

*M. Putterriaa ez, beste, Mezeen aldiala ta andi, pues, bakutzek biaak iruui-
tzen zittubeen, bakutzek lotiek nun zazkabiñen oo ola ta orti artzen ziyeen. Gioo
bestiaatzuten, beeix, Lizarrustiti.*

G. Guk lotiek goyen dazkaau, ez, Putterriin atzekaldien?

M. Bei, bei, Putterrin. Bei, itzootzen giñuzkiyeen Pieen-txia esaten giñooben ordubean, kaminerua ooten auen, pues, orti itzoo, bestiaatzuten gioo jatxi, normalien e, allaatu beñon fabrikeko itxioitaa, zierran-zierran, andik.

G. Ta, senide guziek faten ziñeen oo?

M. Egurretaa oo?

G. Bei, oo tokatzen zakiyonaai?

M. Bu, guu Ixabel ee allaatu auen aitteeki faten eta ni re ezkondu beñoon ee, pues e, aittuneeki ta gioo ya, pues e, partikularrak ikusten zeenien egurra, alako tokiten, iguel ee, ta furiya faten zan gareyen ee, ta denbora zoonien, utzi bide erdiyen oo ta egur iittiaa aurriaatu.

G. Len esan dezu aultziyek eta iitten ziala estaasiyeki, bioorraki ta?

M. Bei, bei, bei. Gioo trilladora. Trilladora plazan ooten auen eta ya, ba, fan zan urtien azkena zana urrengo urtien lena, ta gioo, batek iin da txandaka, txandaka izeten auen. Ta gioo trilladoraan ooi batzuk utzi zabien gareyen aittek sortu ziyeen trilladoraat lantza-pajas oo gora botatzeko. Ordubean mendderetan ibil bee...

G. Ordu artio plazan jarri ta...

M. Bei, bei mendderetan. Jartzen txubeen iru oo, ezta, ez denak erriko denak, iru oo ta bueno, elkarrendako grupua jarriik.

G. Oso aundiyeek etzian izeen, gari asko izeen?

M. Ez gari asko ez auen izeten, ta gioo ze trilladora ta ze motorrak ee, ezi arrankatus ta ola ibiltzen txubeen.

G. Ni goguaatzen neiz, or iooten zana eskolakuortan.

M. Bei, eskolakuortan, bei. Ta emakomiek, e, mendderiek jartzen txubeen denak ta puntak arrapatu, baakik, prisekan tapatu beñoon agotzak ta makomiek normalien, beti-beti mendderieen punteteei oskitten. Ya, zeatzen zan gareyen, batzuk prisekan ta bestiaatzuk, beix, nagiyoo eztakit zer beño.

G. Gioo, etxeko gauzek eta, lixubek eta oik nola itten ziñuzkiyeen?

M. Pertzan jartzen auen, osea, laatzien us berueeki, jartzen auen txorrua, gaaai Lidiek zikok florieki, atziortan. Ura beñon, pues, izeten txubeen zin oo, osea, nola ibiltzen zittube fontaneruek eta.

G. Bei, plomuba?

M. Plomuba re ez, ola, ariñooko zera, zin oo zinka oo. Udsa zeatzen zan gareyen, uds irikiñuura katxarroon bateki, pues, sartzen txubeen arropak an, normalmente mendderiek geyoo, txorrouiten, gioo geñeti, autsa bezelakua izeten auen, ba gioo, sukoautseeki eta jarri bat ola zabal-zabala ta gioo uds beruura bota ta azpiyen bestiaat ooten auen ta ura botatzen gareyen, pues, azpiyen zoonak atziaa udsa biootu ta etzikiyet zenbat txanda.

G. Etzan garbialdi beteki iitten?

M. Ez, ez, pasatzen pasatzen. Gioo mendderiek izeten txuben mixeskuoik, lodiyek eta gioo aklaatzeko baakik.

BIBLIOGRAFIA

ERDOZIA MAULEON, Jose Luis, 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Nafarroako Gobernua.

– 2002, “Bakaikuko euskara”, *FLV*, 90, pp. 269-306.

GAMINDE, Iñaki, 1985, *Aditza Ipar Goi Nafarreraz*, UEU.

INZA, Dámaso, 1920-1921, *Napařoko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran*, Euskera II, II zenbakia.

MITXELENA, Koldo, 1985, *Fonética Histórica Vasca*, ASJUren gehigarriak.

YRIZAR, Pedro, 1992, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*, Euskaltzaindia.

Sakanako Ahozko Tradizioa, 2001, Sakanako Mankomunitatea.

LABURPENEA

Lan honetan Lizarragabengoko hizkeraren deskribapena egin dugu. Egun oraindik bizi-bizirik dagoen hizkera dugu, baina denbora gutxi barne, bere erabilerari dagokionez behintzat, galtzeko zorian izan daiteke, batua (lizarragabengoar gaztetxoan artean) eta arbizuera, bereziki (gainerakoan artean, hurbiltasun geografikoa dela eta) ari baitira gailentzen azken urteotan eguneroko jardunean. Dena den, aipatu arbizuera eta etxarriera bizirik irauten duten bitartean hortxe izango dugu lizarragabengoerara hurbiltzeko aukera, bietako moldeak edota bilakabideak baliatzen dituelako, dudarik gabe, hizkera bizi eta eder honek.

RESUMEN

En este trabajo hemos descrito el euskara de Lizarragabengoa. Es un habla que, si bien está totalmente viva en la actualidad, corre un serio peligro de desaparición, al menos en lo referente a su utilización, ya que el euskara batua (entre los más jóvenes) y el euskara hablado en Arbizu, sobre todo (entre el resto, debido a la cercanía geográfica), son los que se están imponiendo en la utilización diaria. No obstante, siempre tendremos la posibilidad de recordarlo mientras sigan vivas las hablas correspondientes de Etxarri-Aranatz y Arbizu, puesto que son estructuras y recursos de ambas las que utiliza este habla tan hermosa.

RÉSUMÉ

Dans ce travail nous avons décrit l'euskara de Lizarragabengoa. C'est un langage que, bien qu'il soit absolument vivant dans l'actualité, est en grand danger de disparition, du moins pour ce qui est de son utilisation, puisque l'euskara batua (parmi les plus jeunes) et l'euskara qui se parle à Arbizu, surtout (sur le reste dû à la proximité géographique), sont en train de s'imposer pour ce qui est de l'utilisation quotidienne. Cependant, nous aurons toujours la possibilité de le remémorer tant que les langages parlés à Etxarri-Aranatz et Arbizu seront vivants, puisque ce sont des structures et des ressources des deux qui sont utilisés dans ce si beau langage.

ABSTRACT

This article describes the Basque spoken in Lizarragabengoa. This version of the language, although currently alive and kicking, is in serious danger of disappearing, at least as far as use is concerned, the unified version of the language (among the younger population) and the Basque spoken in Arbizu, above all (among the rest as a result of geographical proximity), dominating day-to-day speech. However, as long as the forms of speech particular to Etxarri-Aranatz and Arbizu remain in use, we shall always be able to recall the Basque from Lizarragabengoa, given that this beautiful version of the language employs structures and resources loaned from both.